Según el artículo 63.1 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo cuando las características y necesidades del desarrollo urbano en las zonas limítrofes de varios términos municipales hagan necesario coordinar la ordenación estructural de los planes generales afectados, y en defecto de un instrumento de ordenación territorial que lo

duen lurralde-antolamenduko tresnarik ez baldin badago, ukitutako udalek bateragarritze-plan bat egiteko akordioa har dezakete.

Jarraian, aipatuko Legearen 92.1 artikuluak honako hau dio: Hirigintzako antolamenduko planak udalerri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, eragindako toki-entitateetako bakar batek egin ditzake formulazioa eta izapideak, hala badagokio, udal guztien artean iritsitako akordioaren arabera.

Era berean, 92.3 eta 92.4 artikuluek honako hau xedatzen dute: Hasierako onespena jendaurrean jartzeko iragarkia eta behin betiko onespenari buruzko ebazpena, biak, eragindako lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko dira. Bateragarritze-planak antolamendu orokorreko zehaztapenei eragiten dienez gero, plan horri buruzko txostena eman beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak.

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzenduena aintzakotzat hartu eta Donostiako Udalbatzak

E R A B A K I  D U

1.- Hasierako onarpena ematea Lasarte – Oria eta Donostia Udalerriak bateragarri egiteko plana eta dokumentazio osagarriari, Lasarte – Oriako Plangintzako Arau Subsidiarioetako “A.33 Teresategi eremuari eta Donostiako HAPO-ko “AÑ.10 Errekalde(II)” eremuari eta Bide-Sistemari Orokorrari buruzkoari.

Behin betiko onarpena baino lehen dagokion

realice, los ayuntamientos afectados podrán acordar la elaboración de un plan de compatibilización.

Continua el artículo 92.1 del mismo cuerpo legal señalando que cuando un plan de ordenación urbanística afecte territorialmente a más de un municipio, la formulación y tramitación podrá corresponder a una sola de las entidades locales afectadas, en los términos del acuerdo, en su caso, alcanzado entre las mismas.

A su vez, los artículos 92.3 y 92.4 disponen: El anuncio de exposición al público de la aprobación inicial y la publicación de su aprobación definitiva se realizará en los boletines y en el diario o diarios de mayor circulación de los territorios históricos afectados. El plan de compatibilización, en la medida en que afecta a determinaciones de ordenación estructural, se someterá al informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Visto cuanto antecede y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento

A C U E R D A

1º.- Aprobar con carácter inicial y de acuerdo con las condiciones establecidas en los informes obrantes en el expediente el Plan de Compatibilización de los municipios de Lasarte - Oria y Donostia – San Sebastián referido a los ámbitos “A.33 Teresategi” de las NN.SS de planeamiento de Lasarte – Oria y “AÑ.10 Recalde (II) y Sistema General Viario del P.G.O.U de Donostia – San Sebastián así como su documentación complementaria.

Antes de la aprobación definitiva se presentará el

testu bateratua aurkeztu beharko da.

2.- Berrogeita bost egunean jendaurrera aterata edukitzea bai Bateragarri egiteko Plana bai Bateragarri egiteko planan dagoen Ingurumen azterketa estrategikoa.

Jendaurrean jarri den dokumentazioa ingurumen azterketa estrategikoaren laburpen ez tekniko bat edukiko du.

3.- Jendaurrean jartzearen izapidearekin batera, Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen azterketa estrategikoa, eragindako Administrazio Publikoak eta aldez aurretik kontsultatuak izan diren pertsona interesatuen kontsultara jarriko dira.

4.- Bi urtean etenda izatea (gehiagoan ez) udalerri honetako antolatu behar den eremu honetako guztiko onarpen, baimen eta lizentzia klase guztiak.

Edozein moduz ere, aldaketa hau behin betiko onartutakoan, bukatu egingo da etenaldi hori.

5.- Udal Planeamenduko Aholku Batzordeari dei egitea egin beharreko txostena egin dezan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2018.eko apirilaren 30an.

correspondiente Texto Refundido.

2º.- Someter el Plan de Compatibilización y el estudio ambiental estratégico que contiene al trámite de información pública durante el plazo de cuarenta y cinco días.

La documentación sometida a información pública incluirá, asimismo, un resumen no técnico del estudio ambiental estratégico.

3º.- Simultáneamente al trámite de información pública, se someterá la versión inicial del plan, acompañado del estudio ambiental estratégico, a consulta de las Administraciones Públicas afectadas y de las personas interesadas que hubieran sido previamente consultadas.

4º.- Proceder a la suspensión, por el plazo máximo de dos años, de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias, en la totalidad del ámbito objeto de ordenación perteneciente a este municipio.

La suspensión se extinguirá, en todo caso, con la aprobación definitiva de la presente modificación.

5º.- Convocar al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, al objeto de que emita el correspondiente informe.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en Donostia / San Sebastián a 30 de abril de 2018.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO

ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo".

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**QUORUM.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**QUORUM.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**6. "CE.03 PARTE ZAHARRA" Hirigintza Eremuaren Arau Partikularrari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Xedapen Aldaketari hasierako onarpena ematea.**

""CE.03 PARTE ZAHARRA" HIRIGINTZA EREMUAREN ARAU PARTIKULARRARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN XEDAPEN ALDAKETA HASIERAKO ONARPENA

Udal Zerbitzu Teknikoek idatzita, "CE.03 PARTE ZAHARRA" Hirigintza Eremuaren arau partikularrari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Xedapen Aldaketa aurkezten da abere izapide eta onarpenerako.

**6. Aprobación inicial de la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana referida a la Norma Particular del Ámbito Urbanístico CE.03 PARTE VIEJA.**

"APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA REFERIDA A LA NORMA PARTICULAR DEL ÁMBITO URBANÍSTICO "CE.03 PARTE VIEJA"

Redactado por los Servicios Técnicos Municipales se presenta para su tramitación y aprobación la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana referida a la Norma Particular del Ámbito Urbanístico CE.03 PARTE VIEJA.

Hauxe dira dokumentuaren helburi nagusienak:

-Bizitegi erabilerak babestea, bizitegi erabilerak baitira antolatutako bizitegi lursailen, gaur egun «a.10 Hirigune historikoko bizitegia» kalifikazio xehatua duten horiexen, goiko solairuetako etxebizitzen erabilera propioa, berezkoa eta, azken finean, egokiena. Azken finean, helburu hori guztiz bat dator indarrean dagoen egitura antolamenduak «A.10/CE.03» zonalde globalerako –hortxe sartzen da «CE.03 Alde Zaharra» hirigintza eremu osoa– erabilera berezko, nagusi eta/edo gailen gisa definitzen duen bizitegi erabilerarekin.

-Bestetik, Donostiaren erakarpen turistikoaren etengabeko gorakadarekin lotutako erabilerak mugatzea, erakarpen turistikoaren etengabeko gorakadak berekin baitakar Alde Zaharraren erabilera presio eta intentsitate jakin bat –eta hori argi ikusten da, zehazki, «CE.03 Alde Zaharra» eremuan–, hotel arloko erabilerak ezarri direlako –halakotzat hartzen dira irabazi asmoekin pertsonei ostatu emateko erabilerak, edozein modalitatetan (hotelak, pentsioak, aterpetxeak, etab.), turismoko bizitoki izateko baliatzen diren etxebizitzena barne–, eta gune publikoen erabileran eta kontsumoan presioak gora egin duelako –presio horrek zerikusia du ostalaritzako establezimendu asko (tabernak, jatetxeak, etab.) eta udalaren edo udalaz gaindiko hornikuntza publiko jakin batzuk egotearekin–, eta, horretarako, berariaz debekatzen da bizitegi izaera duten gaur egungo eta/edo etorkizuneko eraikuntzen, «a.10 Hirigune historikoko bizitegia» kalifikazio xehatua duten lursailetan kokatuta dauden horiexen, goiko solairuetan ostalaritzako erabilerak ezartzea.

Debeku horrek erreferentzia egiten dio 2010eko Plan Orokorrean hotel arloko erabileratzat

Los objetivos fundamentales del documento son dos:

-La protección de los usos residenciales como destino propio y característico y, en definitiva, más adecuado, de las viviendas implantadas en las plantas altas de las parcelas residenciales ordenadas, que cuentan actualmente con calificación pormenorizada “a.10 Residencial de casco antiguo”. En definitiva ese objetivo está en perfecta consonancia con el uso residencial definido por la vigente ordenación estructural como uso característico, predominante y/o mayoritario para la Zona Global “A.10/CE.03”, que incluye la totalidad del Ámbito Urbanístico “CE.03 Parte Vieja”.

-La limitación de los usos vinculados al constante crecimiento del atractivo turístico de la ciudad de Donostia, que conlleva una particular presión e intensidad de uso de su Casco Antiguo o Parte Vieja, evidenciado en el concreto ámbito “CE.03 Parte Vieja”, tanto, por la importante implantación de usos hoteleros, -entendidos éstos como los de hospedaje de personas, ejercido con fines lucrativos, en cualquiera de sus modalidades (hoteles, pensiones, albergues, etc.), incluida la de viviendas que se destinan a usos de alojamiento turístico-, como el incremento de la presión en el uso y consumo de los espacios públicos, vinculada a la importante presencia de establecimientos hosteleros (bares, restaurantes, etc.) y ciertas dotaciones públicas de escala municipal o supralocal, mediante la prohibición expresa de implantar aquellos usos hoteleros en las plantas altas de las edificaciones de carácter residencial, actuales y/o futuras, identificadas como aquellas que se sitúan en las parcelas calificadas pormenorizadamente como “a.10 Residencial de casco antiguo”.

Dicha prohibición se refiere expresamente a la implantación, tanto de forma parcial, afectando a

definitzen diren erabilera horiek ezartzeari, hala modu partzialean, hots, eraikuntzen elementu jakin batzuei eraginez (etxebizitza unitateei edo eraikuntza bateko solairuei), nola eraikuntza osoari eraginez, goiko solairuez ari garelarik betiere. Debeku horretan sartzen da etxebizitzak, osorik edo partzialki –alegia, gelaka–, turismorako bizitoki gisa erabiltzea.

elementos individuales de las edificaciones (unidades de vivienda o plantas de la edificación), como total, afectando al conjunto de la edificación, referido siempre a las plantas altas, de los usos definidos como hoteleros en el vigente Plan General de 2010, incluyendo en dicha prohibición, el destino de las viviendas, tanto de forma completa como parcialmente, por habitaciones, para usos de alojamiento turístico.

Dokumentuaren hirigintza izapidea baino lehen, 2017.ko irailaren 27an Eusko Jaurlaritzan ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren hasiera eskaera aurkeztu zen, EAES_069 espedientea sortuz. 2018.ko urtarrilaren 236an ebazpen bidez Ingurumen -txosten estrategikoa idazten da. Funtsean, ingurumenaren gaineko eragin nabariak ez direla aurreikusten ondorioztatzen da.

Previamente a la tramitación urbanística del documento, el 27 de septiembre de 2017 se presenta ante el Gobierno Vasco la solicitud de inicio de la evaluación ambiental estratégica simplificada, cuyo expediente EAES_069 concluye mediante resolución de 23 de enero de 2018, por la que se formula el informe ambiental estratégico, concluyendo que el Plan no tiene efectos significativos sobre el medio ambiente.

Aipatuko ebazpena Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da 2018.ko otsailaren 2an.

Dicha resolución se publica el 2 de febrero de 2018.

Bestalde, espedientean egin den partaidetza programaren garapena isladatzen da:

Por otra parte consta en el expediente el desarrollo del Programa de Participación Ciudadana llevado a cabo:

*Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteko ordezkariaekin bilera.

*Reunión informativa con los representantes de la Asociación Vecinal Parte Zaharrean Bizi.

*Bilera informatiboa herritarrei irekia.

*Reunión informativa abierta a la ciudadanía.

*Programan aurkeztutako ekarpenak dokumentuan nola jaso diren Hirgintza Sostengarrirako Zuzendaritzaren txostena.

*Informe de la Dirección de Urbanismo Sostenible sobre incorporación al documento de las aportaciones realizadas en el programa.

Hasierako onarpenerako beharrezkoak diren txosten sektorialak lortu dira eta hasierako onarpena eta gero, alorreko araudi eta legediak galdatutako txostenak eskatuko dira.

También se han recabado los informes sectoriales necesarios de cara a la aprobación inicial del documento y tras la aprobación inicial del mismo, se solicitarán los informes exigidos por la legislación y normativa sectorial.

Edukiak, bestalde, bete egiten ditu Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeko 103, 104

En cuanto a su contenido cumple con las determinaciones establecidas en los artículos

eta 105. artikuluek agindutakoak.

103, 104 y 105 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 85.3 atalak honako hau dio: Hirigintzako planei hasierako onespena emateak berekin ekarriko du edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etendura horrek ordezkatu egingo du aurreko paragrafoan zehaztutako neurria, neurri hori aurretik hartuta baldin badago.

Según el artículo 85.3 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo el acuerdo de aprobación inicial de los planes urbanísticos determinará la suspensión, por el plazo máximo de dos años en el caso de que el acuerdo se refiera a planes generales, y de un año en todos los restantes casos, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

Horiek horrela direla, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzenduena aintzakotzat hartu eta Donostiako Udalbatzak

Visto cuanto antecede y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento

E R A B A K I   D U

A C U E R D A

1.- “CE.03 PARTE ZAHARRA” Hirigintza Eremuaren Arau Partikularrari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Xedapen Aldaketari hasierako onarpena ematea.

1º.- Aprobar con carácter inicial la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana referida a la Norma Particular del Ámbito Urbanístico CE.03 PARTE VIEJA.

2.- Hilabetean ikusgai jarrita edukitzea espedientea.

2º.- Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de un mes.

3.- Bi urtean etenda izatea (gehiagoan ez) antolatu behar den eremu honetako guztiko onarpen, baimen eta lizentzia klase guztiak Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 85 artikuluak xedatutakoaren arabera.

3º.- Proceder a la suspensión, por el plazo máximo de dos años, de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias, en la totalidad del ámbito objeto de ordenación en los términos del artículo 85 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo

Edozein moduz ere, aldaketa hau behin betiko onartutakoan, bukatu egingo da etenaldi hori.

La suspensión se extinguirá, en todo caso, con la aprobación definitiva de la presente modificación.

4.- Udal Planeamenduko Aholku Batzordeari dei egitea aldaketaren gainean egin beharreko txostena egin dezan.

4º.- Convocar al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, al objeto de que emita el correspondiente informe respecto a la Modificación.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2018.eko maiatzaren 2an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en Donostia / San Sebastián a 2 de mayo de 2018.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA /".
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Carlos Cuevas Argandoña

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**OGASUNEKO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE HACIENDA**

**7. Baimena ematea Dbusi epe luzerako kreditu eragiketa bat izenpetzeko.**

**7. Autorización a Dbus a suscribir una operación de crédito a largo plazo.**

"UDALBATZARI

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

Baimena ematea dBusi epe luzerako kreditu eragiketa bat izenpetzeko

Autorización a dBus a suscribir una operación de crédito a largo plazo

Donostiako Tranbia Konpainia SAk autobus berriak erosi nahi ditu, eta, hori finantzatzeko, 4.632.600 euroren mailegu bat eskatu nahi dio finantza erakunde bati.

La Compañía del Tranvía de San Sebastián, S. A. ha previsto la compra de nuevos autobuses y su financiación vía préstamo con entidad financiera, por importe de 4.632.600€ .

Toki Ogasunen Legearen testu bategina onartzen duen 2004ko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuko 54. artikuluak arautzen ditu Udalaren merkataritza sozietate publikoen epe luzerako kreditu eragiketak. Horren arabera, Udalbatzaren baimena eta Kontuhartzailetzaren txostena behar dira horretarako.

Xedapen bereko 48.a bis artikuluak finantza zuhurtasunaren printzipioa arautzen du, alegia, finantza eragiketek arriskua eta kostua ahal denik eta txikiena izateko bete behar dituzten baldintzen multzoa. Artikulu horren 6. atalak dio toki korporazioek finantza zuhurtasunaren printzipioa aplikatu behar dutela sektore publiko guztian. Praktikan, printzipio hori betetzeko, maileguaren interes tasa ezin da izan tasa finkoa edo euriborraren gaineko diferentziala baino handiagoa –eragiketa nola planteatzen den, interes tasa finkoan edo aldakorrean–, eragiketaren batez besteko bizitza aintzat hartuta eta finantza erakundeekin negoziatu behar den unean Diruzaintzaren Zuzendaritza Nagusiak argitaratua duen azken ebazpena oinarri.

Kontuhartzailetza Nagusiak, dataren egunean, Udalak baimena ematearen aldeko txostena egin du.

Horiek horrela direla, Udalbatzari akordio hauek hartzea proposatzen diogu:

Lehenengoa: Baimena ematea Donostiako Tranbia Konpainia SAri epe luzerako kreditu eragiketa bat egiteko, 4.632.600 eurorena, autobus berriak erosteko, sozietatearen Administrazio Kontseiluak ezartzen dituen finantza baldintzetan. Baimen hori Udalak, eragiketaren berme gisa, abala eman artekoa izango da, baldin eta finantza baldintzak nabarmen hobetzeko halakorik behar bada. Horretarako ez da beste akordiorik hartu

El Artículo 54 del Real Decreto Legislativo 2/ 2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Haciendas Locales, regula las operaciones de crédito a largo plazo de las sociedades mercantiles públicas municipales, estableciendo que precisan de autorización del Pleno de la Corporación e informe de la Intervención.

El Artículo 48 bis de la misma disposición regula el Principio de prudencia financiera entendido como conjunto de condiciones que deben cumplir las operaciones financieras para minimizar su riesgo y coste. El apartado 6 del Artículo establece que las Corporaciones Locales velarán por la aplicación del principio de prudencia financiera en el conjunto de su sector público. En la práctica el cumplimiento del Principio exige que el tipo de interés del préstamo no pueda superar el tipo fijo o el diferencial sobre el euribor, según la operación se plantee a tipo fijo o variable, en función de la vida media de la operación, de la última Resolución de la Dirección General del Tesoro publicada en el momento en que se establece la negociación con las entidades financieras.

La Intervención General ha emitido Informe favorable a la autorización municipal en el día de la fecha.

En base a lo expuesto se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero. Autorizar a la Compañía del Tranvía de San Sebastián, S. A. a realizar una operación de crédito a largo plazo, por importe de 4.632.600€, con destino a la adquisición de nuevos autobuses, en las condiciones financieras que se fijen por el Consejo de Administración de la sociedad. Dicha autorización se amplia hasta la Concesión del Aval del Ayuntamiento, como garantía de la operación, sin necesidad de nuevo Acuerdo, sí

beharrik izango.

fuese necesario para mejorar sustancialmente las condiciones financieras del mismo.

Bigarrena. Donostiako Tranbia Konpainia SAk finantza zuhurtasunaren printzipioa aplikatu beharko du eragiketan, proposamen honetako azalpen zatian jasotako baldintzetan.

Segundo. La Compañía del Tranvía de San Sebastián, S. A. deberá aplicar el Principio de prudencia financiera a la operación, en los términos recogidos en la parte expositiva de la presente Propuesta.

Hirugarrena. Mailegu eragiketa Udalaren abalarekin sinatzen bada, Finantza Zuzendaritzak indarrean den araudian ezarritako izapideak egin beharko ditu.

Tercero. En el caso que la operación de préstamo se suscriba con Aval del Ayuntamiento, la Dirección Financiera deberá realizar los tramites necesarios establecidos en la normativa vigente.

Donostia, 2018ko maitzaren 11

San Sebastián, 11 de mayo de 2018

MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIOETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA

OGASUNEKO ETA FINANTZETAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA".

LA DELEGADA DE MOVILIDAD Y TRANSPORTES"

EL DELEGADO DE HACIENDA Y FINANZAS".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA**

**COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES**

**8. Kudeaketa materiala izendatzea, Donostiako Udalaren eta polizia eta larrialdietako euskal akademiaren artean, udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente kategoriara sartzeko hautaketa prozesu bateratuak kudeatzeko.**

**8. Encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos unificados de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policía Local.**

“UDALBATZARI

KUDEAKETA MATERIALA IZENDATZEKO, DONOSTIAKO UDALAREN ETA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ARTEKOA, UDALTZAINGOAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTE KATEGORIAN SARTZEKO HAUTAKETA PROZESU BATERATUAK KUDEATZEKO

Udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente deialdiak era bateratuan kudeatzeko aukera eskaini die Donostiako Udalari eta Euskadiko gainerako udalei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak.

Aipatu proposamena aztertuta, erabaki horren abantailak oso garrantzitsuak dira Udalarentzat bai izangaientzat ere, baliabideak eraginkorki kudeatzeko bidea ematen duelako, izangaiak joatea galarazteak gain, izangai horiek deialdi bakarrera aurkeztu ahal izateko modua egiten duelako ere.

Nabarmendu beharra dago lankidetza estua dutela Donostiako Udalak eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, azken hau arduratzen baita Udaltzaingoko hauta prozesuez, azterketa psikoteknikoez eta Udaltzaingoko kategoria bakoitzera sartu nahi duten izangaien praktikaldiko prestakuntzaz. Gainera, berbera arduratzen da Udaltzaingoko langileak birziklatzeko ikastaro eta programa asko emateaz.

Horregatik guztiagatik, eta Udaltzaingoaren deialdiak eraginkortasunez nahiz behar bezala finantzatu eta kudeatuta bideratzeko, egoki deritzogu aipatu kudeaketak Akademiaren esku uztea, kontuan izanda proposamen horren alde agertu direla bai Donostiako

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

ENCOMIENDA DE GESTIÓN MATERIAL ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN Y LA ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS PARA LA GESTIÓN DE LOS PROCESOS SELECTIVOS UNIFICADOS DE INGRESO EN LA CATEGORÍA DE AGENTE DE LA ESCALA BÁSICA DE POLICÍA LOCAL.

La Academia Vasca de Policía y Emergencias, ha propuesto al Ayuntamiento de San Sebastián y al resto de Ayuntamientos del País Vasco, la posibilidad de gestionar de forma unificada las convocatorias de Agente de la Escala Básica de Policía Local.

Estudiada dicha propuesta, las ventajas de esta decisión son muy importantes para el Ayuntamiento, y para los opositores permitiendo una eficacia en la gestión de los recursos, evitando la fuga de aspirantes y haciendo posible que los aspirantes se presenten a una única convocatoria.

Hay que destacar que el Ayuntamiento ya viene colaborando estrechamente con la Academia Vasca de Policía y Emergencias, ya que es la encargada de realizar, en todos los procesos selectivos de la Guardia Municipal, las pruebas psicotécnicas, y también se ocupa de la formación en prácticas de los aspirantes que desean entrar en cada categoría de la Guardia Municipal. Además, es la responsable de la impartición de muchos de los cursos y programas de reciclaje del personal de la Guardia Municipal.

Por todo ello y atendiendo a razones de eficacia, correcta financiación y gestión de las convocatorias de la Guardia Municipal, se considera adecuado proponer la encomienda de gestión mencionada, teniendo en cuenta de que dicha propuesta es informada

Udaltzaingoko Zuzendaritza eta Donostiako Udaleko Pertsonen Zuzendaritza.

favorablemente tanto por la Dirección de la Guardia Municipal como por la Dirección de Personas del Ayuntamiento de San Sebastián.

Azkenik, kontuan izan behar da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluak xedaturikoaz bat, administrazio publikoetako organo eta zuzenbide publikoko erakundeek elkarren artean kudeaketaren ardura beste bati izendatzea gauzatu beharko da hitzarmen bidez, bai eta hura Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ere.

Por último, ha de tenerse en cuenta que, de acuerdo con lo provenido en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, la encomienda de gestión entre órganos y Entidades de Derecho Público de distintas Administraciones, se formalizará mediante firma del correspondiente convenio que deberá ser publicado en el BOG.

Proposamen hau langileen ordezkariekin negoziatuta dago.

Esta propuesta ha sido objeto de negociación con la representación del personal.

Horiek horrela direla, Udalbatzari ondokoak proposatzen dizkiogu

A la vista de lo expuesto, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción de los siguientes

ERABAKIAK

A C U E R D O S

Lehenengoa. Kudeaketa materiala izendatzea, Donostiako Udalaren eta polizia eta larrialdietako euskal akademiaren artean, udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente kategoriara sartzeko hautaketa prozesu bateratuak kudeatzeko.

Primero. Efectuar la encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de San Sebastián y la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos unificados de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policía Local.

Bigarrena. I. eranskin moduan erantsitako dokumentuaren arabera gauzatuko da kudeaketa izendatze hori.

Segundo. La encomienda se desarrollará conforme a lo establecido en el documento que se adjunta como Anexo I.

Hirugarrena. Erabaki hau eta hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea, Araudiak xedaturikoa betetzeko.

Tercero. Se procederá a la publicación del presente acuerdo en el BOG, en cumplimiento de lo establecido en la Normativa.

Donostian, 2018ko apirilaren 23ean.

PERTSONEN ZUZENDARIA,
Sin.: Ana Salustiano Esnoz.

O.E.
LEHENDAKARITZAKO ETA GARDENTASUNEKO, GIZA

GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN BURUA,
Sin.: Maribel Iñiguez Azurmendi".

BALIABIDEETAKO ETA BERRIKUNTZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA,
Sin.: Juan Ramón Viles Mitxelena".

Eztabaida hasita, Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Juan Ramón Viles Mitxelena, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**QUORUM.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**QUORUM.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**MOZIOAK**

**MOCIONES**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**9. Mozio arrunta, IRABAZI taldeak aurkeztua, Donostiako sarbideen planari buruzkoa.**

**9. Moción ordinaria, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre plan de accesos a Donostia.**

"Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluarekin bat etorriz, Donostiako sarbideen planari buruzko MOZIO hau aurkezten du, UDALBATZAN AZTER DADIN.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den apirilean, hiri ekialdeko trafiko arazoei buruzko interpelazio eta kontrol-mozio baten harira (zehazki, Martutene eta Garberako biribilguneetako arazoei buruzkoa zen mozioa), Mugikortasuneko zinegotzi-ordezkaria den Arana andreak jakinarazi zuen erakunde arteko batzordeak (besteak beste, hiriko sarrera-irteerak aztertzeko sortuak) lehentasunezko puntu batzuk identifikatu dituela, eta horietan neurriak hartzea beharrezkoa dela. Identifikatutako puntuen artean daude lehen aipatutakoak.

Alabaina, Arana andreak ez zuen zehaztu erakunde arteko batzordea zehazki zer egitea aztertzen ari den edo zerk izango duen lehentasuna. Beraz, gaur-gaurkoz, ez dugu egiten ari diren lanen zehaztapenen berri, eta ez dakigu bi erakundeek zenbateko epeak finkatuko dituzten lan horiek egiteko.

Era berean, iruditzen zaigu aipatutako mugikortasun-plana udal taldeei igorri behar zaiela behin betiko onartu aurretik, zer ari diren planteatzen jakin ahal izateko. Horrez gain, uste dugu hiritarrek ere izan behar dutela planteamendu horien berri, balioztatu ahal izateko eta ekarpenak egin ahal izateko.

Hori guztia dela eta, Irabazi Donostia udal taldeak hau planteatzen du:

"Amaia Martin, portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN PARA SU DEBATE EN EL PLENO, sobre el plan de accesos a Donostia.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de abril, a raíz de una interpelación y moción de control sobre los problemas de tráfico en la zona este de la ciudad (en concreto las rotondas de Martutene y Garbera), la concejala delegada de movilidad, Sra. Arana, informó de que la comisión interinstitucional creada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para analizar, entre otras cuestiones, las entradas y salidas de la ciudad ha identificado unos puntos prioritarios donde se hace necesario actuar, entre los actuales se encuentran las rotondas mencionadas.

No obstante, la Sra. Arana no fijó las actuaciones concretas que la comisión interinstitucional está analizando, o la prioridad de las mismas, de manera que a día de hoy desconocemos la concreción de los trabajos que se están llevando a cabo, y los plazos que se van a marcar ambas instituciones para la realización de los mismos.

Igualmente, consideramos que el citado plan de movilidad debería ser trasladado a los grupos municipales previa a su aprobación definitiva, de manera que podamos tener conocimiento de qué se está planteando. También creemos que la ciudadanía debe conocer esos planteamientos para poder valorarlos y hacer aportaciones.

Por todo ello, el grupo municipal Irabazi Donostia plantea la siguiente

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, lau hilabeteko epean eta behin betiko onartu aurretik, Donostiako sarbideen plana igortzeko udal talde guztiei.

2. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Donostiako sarbideen plana helarazteko hiritarrei, balioztatzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten haiek.

Donostian, 2018ko maiatzaren 4an

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Ayuntamiento en Pleno de Donostia/San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que, en el plazo de cuatro meses, y previa a su aprobación definitiva, traslade a todos los grupos municipales el plan de accesos a Donostia.

2. El Ayuntamiento en Pleno de Donostia/San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que traslade a la ciudadanía el plan de accesos a Donostia, de manera que pueda valorarlos y hacer aportaciones al mismo.

Donostia a 4 de Mayo de 2018

Fdo:. Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D. José María Murguiondo Casal, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**9. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko maiatzaren

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en

hogeita lauan izan zuen osoko bilera ohikoan, IRABAZI DONOSTIA taldeak Donostiako sarbideen planaz aurkeztutako mozio arrunt bat onartu zuen, EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek elkarrekin aurkeztu zituzten bi zuzenketa ere eginda. Estreinako aldaketa, erabaki zatiko 1. puntua aldatzea da, eta bigarrena, erabaki zatiko 2. puntua kentzea. Horrenbestez, hauxe da azkenean onartu zen testua:

Sesión Ordinaria celebrada el día veinticuatro de mayo de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el Plan de accesos a Donostia, que incorpora dos enmiendas aprobadas, presentadas conjuntamente por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, la 1ª de modificación del punto nº1 de la parte resolutiva y la segunda de supresión del punto 2º de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Joan den apirilean, hiri ekialdeko trafiko arazoei buruzko interpelazio eta kontrol-mozio baten harira (zehazki, Martutene eta Garberako biribilguneetako arazoei buruzkoa zen mozioa), Mugikortasuneko zinegotzi-ordezkaria den Arana andreak jakinarazi zuen erakunde arteko batzordeak (besteak beste, hiriko sarrera-irteerak aztertzeko sortuak) lehentasunezko puntu batzuk identifikatu dituela, eta horietan neurriak hartzea beharrezkoa dela. Identifikatutako puntuen artean daude lehen aipatutakoak.*

*“El pasado mes de abril, a raíz de una interpelación y moción de control sobre los problemas de tráfico en la zona este de la ciudad (en concreto las rotondas de Martutene y Garbera), la concejala delegada de movilidad, Sra. Arana, informó de que la comisión interinstitucional creada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para analizar, entre otras cuestiones, las entradas y salidas de la ciudad ha identificado unos puntos prioritarios donde se hace necesario actuar, entre los actuales se encuentran las rotondas mencionadas.*

*Alabaina, Arana andreak ez zuen zehaztu erakunde arteko batzordea zehazki zer egitea aztertzen ari den edo zerk izango duen lehentasuna. Beraz, gaur-gaurkoz, ez dugu egiten ari diren lanen zehaztapenen berri, eta ez dakigu bi erakundeek zenbateko epeak finkatuko dituzten lan horiek egiteko.*

*No obstante, la Sra. Arana no fijó las actuaciones concretas que la comisión interinstitucional está analizando, o la prioridad de las mismas, de manera que a día de hoy desconocemos la concreción de los trabajos que se están llevando a cabo, y los plazos que se van a marcar ambas instituciones para la realización de los mismos.*

*Era berean, iruditzen zaigu aipatutako mugikortasun-plana udal taldeei igorri behar zaiela behin betiko onartu aurretik, zer ari diren planteatzen jakin ahal izateko. Horrez gain, uste dugu hiritarrek ere izan behar dutela planteamendu horien berri, balioztatu ahal izateko*

*Igualmente, consideramos que el citado plan de movilidad debería ser trasladado a los grupos municipales previa a su aprobación definitiva, de manera que podamos tener conocimiento de qué se está planteando. También creemos que la ciudadanía debe*

*eta ekarpenak egin ahal izateko.*

*Hori guztia dela eta, Irabazi Donostia udal taldeak hau planteatzen du:*

*MOZIO ARRUNTA*

*Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari GI-20 errepidea Donostiako udalerrian birmoldatu eta iragazgaiztea, Martuteneko biribildua eraldatu eta hobetzea eta Carlos I.aren bide horma kentzea, eta, behin betiko onartu aurretik, udal taldeei eta herritarrei helaraztea Donostiako sarbideen planaren edukia". =======================*

*conocer esos planteamientos para poder valorarlos y hacer aportaciones.*

*Por todo ello, el grupo municipal Irabazi Donostia plantea la siguiente*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*El Ayuntamiento en Pleno de Donostia/San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a la remodelación y permeabilización de la GI-20 a su paso por nuestro término municipal, a la transformación y mejora de la rotonda de Martutene y a la eliminación del muro viario de Carlos I, y previo a su aprobación definitiva, traslade a todos los grupos municipales y a la ciudadanía el contenido del plan de accesos viarios a la ciudad".====================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hogeita bederatzian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintinueve de mayo de dos mil dieciocho.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso".

---------------

**10. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Loiolako kuartelak Donostiako etxebizitzetarako berreskuratzeko beharra dela-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren

**10. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la necesidad de recuperar los cuarteles de Loiola para destinarlos a viviendas.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del

Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNTA aurkezten du, Loiolako Kuartelak Donostiako etxebizitzetarako berreskuratzeko beharra dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko abenduaren 22an Donostiako Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen:

“3. Loiolako kuartelak, Espainiako poliziaren eraikina Amara Zaharrean, eta Lore-Toki behortegia

- Berrestea Donostia hiriaren interesekoa dela erostea egun Armadak erabiltzen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, bai eta Amara Zaharrean polizia espainiarraren egoitzak okupaturiko lursaila ere, hartara, gune horiek guztiak erabili ahal izateko Donostian etxebizitzen parke publiko finkoa egiteko premiazko beharrari irtenbide proaktiboa emateko, eta, hortaz, beharrezko negoziazioei ekiteko eskatzea.

- Adieraztea Donostiako Udalaren interesekoa dela Gobernu Zibila izeneko eraikina, udal ekipamendutzat erabiltzeko, Amarako auzotarrek, Donostiako kultur eta gizarte eragileek eta, orokorrean, donostiar guztiek erabili eta hartaz gozatzeko.

- Berrekitea Udalak Lore-Toki behortegiaren lurra benetan erosi ahal izateko negoziazioei, aisialdi eta kirol gunetzat erabili ahal izateko.”

2016ko Aurrekontuen Egitasmoaren eztabaidaren baitan Udalbatzak hartu zuen erabaki honetatik azpimarratzekoa da

artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA relativa a la necesidad de recuperar los cuarteles de Loiola para destinarlos a viviendas.

JUSTIFICACIÓN

El 22 de diciembre de 2015, el Ayuntamiento Pleno de San Sebastián aprobó el siguiente acuerdo:

“3. “3. Cuarteles de Loiola, edificio de la Policía española en Amara Viejo y la yeguada de Lore Toki

- Reiterar el interés de la ciudad por adquirir los terrenos ocupados en la actualidad por las instalaciones del Ejército y utilizadas por el Ministerio de Defensa, conocidas como Cuarteles de Loiola, así como la parcela ocupada por las antiguas dependencias en Amara Zaharra de la policía española, con objeto de emplearlos en dar una salida proactiva a la urgente necesidad de dotar de un parque público de vivienda sólido en la ciudad, y, para ello, requerir que se emprendan las negociaciones pertinentes.

- Declarar el interés del Ayuntamiento en la recuperación del edificio conocido como Gobierno Civil, para destinarlo a equipamiento municipal para el uso y disfrute de los vecinos y vecinas del barrio de Amara, así como de agentes sociales y culturales de la ciudad y de las y los donostiarras, en general.

- Retomar las negociaciones necesarias para hacer efectiva la adquisición por el Ayuntamiento de los terrenos de la yeguada de Lore-Toki, para destinarlo a lugar de esparcimiento y deportivo.”

Del acuerdo adoptado por el Pleno en el debate del Proyecto de Presupuestos para 2016, debe subrayarse la preocupación que

Udalbatzak agertu zuen kezka lehen puntuari dagokionez, hau da, etxebizitzen parke publiko finkoa egiteko premiazkotzat jo zituen eremuak direla-eta, tartean Loiolako Kuartelak. Horrekin batera, bestalde, jakina da, etxebizitza parke publikoaren hazkundea asetzearekin batera, eremu hori hiriarentzat berreskuratzea estrategikoa dela, oztopo hidraulikoak ezabatze aldera bertan egin behar diren interbentzioak direla eta.

mostraba la Corporación respecto al primer punto, es decir, sobre las zonas consideradas como indispensables de cara a la consecución de un parque público de vivienda, entre las que se encontraban los cuarteles de Loyola. Además, por otro lado, es de sobra conocido que, al tiempo que se satisface la necesidad de incrementar el parque público de vivienda, resulta estratégico recuperar esa zona para la ciudad, de cara a las intervenciones que se deben realizar en esa zona para eliminar los obstáculos hidráulicos.

Harturiko konpromisoari jarraiki, Udal Gobernuak garatu dituen harremanek hiriak behar duen emaitza eman ez dute-eta, espaziook ezin izan dira aurreikusi berriki iragarri den etxebizitza planean. Are eta okerrago, egunotan jasotako informazioaren arabera, Espainiako Ministro Kontseiluak, dekretuaren bidez, zonaldea Espainiaren defentsarako interesekotzat jo berri du (zona de interés para la defensa nacional).

Siguiendo con el compromiso adquirido, dado que los contactos desarrollados por el Gobierno municipal no han conseguido el resultado que necesita la ciudad, los espacios no se pueden prever el plan de vivienda anunciado recientemente. Para complicarlo aún más, según información recibida estos últimos días, el Consejo de Ministros de España, por decreto, acaba de nombrar ese espacio “zona de interés para la defensa nacional”.

Erabaki horrek Donostiak dituen beharrak asetzea zailduko duelakoan, egokia da Udalbatzaren iritzia Espainiako Gobernuari irmotasunez helaraztea. Udalbatzak Espainiako Gobernua jakitun egin behar du, bere erabaki horrek Donostiak etxebizitzaren inguruan daukan problematika larriari kentzen dion aukera ordezkaezinaz. Espainiako Gobernuak jakitun izan behar du bisio horrekin bat egiten duela Udalbatzak, eta Udal Gobernuak bateratasun hori lagun izan behar du, horri begira egin beharko dituen kudeaketei begira.

En el convencimiento de que esa disposición dificultará satisfacer las necesidades de San Sebastián, resulta procedente hacer llegar al Gobierno de España con total firmeza la opinión del Ayuntamiento Pleno. El Ayuntamiento Pleno debe poner al tanto al Gobierno de España de que su decisión priva a San Sebastián de una alternativa irreemplazable para solucionar la grave problemática que tiene en el ámbito de la vivienda. El Gobierno de España debe estar al tanto que el Pleno coincide con esa visión, y el Gobierno municipal debe apoyarse en esa unanimidad en las gestiones que realice al respecto.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

MOZIOA ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Espainiako Gobernuari gaur egun Armadak erabiltzen dituen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, Donostiako Udalaren esku behin betiko uzteko, adosten diren terminoen arabera eta dagozkion prozedura guztiak eginda, kontuan hartuta bertan Donostiak Etxebizitza Babestuen sustapena egiteko duen beharra.

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián emplaza al Gobierno de España a poner definitivamente en manos del Ayuntamiento de San Sebastián las instalaciones propiedad del Ministerio de Defensa, que utiliza en la actualidad el Ejercito, los denominados cuarteles Loyola, de acuerdo a los términos que se consensúen y realizando cuantos procedimientos sean precisos, teniendo en cuenta la necesidad que tiene San Sebastián realizar en esa zona vivienda de protección oficial.

Donostian, 2018ko maiatzaren 4an

En San Sebastián, a 4 de mayo de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Alkate-Udalburuak, Loïc Alejandro jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.ª Miren Albistur Garmendia, Alcalde-Presidente, D. Loïc Alejandro y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**PSE-EE ETA IRABAZI DONOSTIA TALDEEK AURKEZTUTAKO ZUZENKETA ADOSTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA TRANSACCIONADA PRESENTADA POR LOS GRUPOS PSE-EE E IRABAZI DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (8) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**11. Kontrol Mozio bateratua, EH BILDU eta IRABAZI Taldeek aurkeztua, zuhaitzen mozketari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok eta EH Bildu taldeko zinegotzi Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu dute. Mozioa hilabete honetako Gune Publikoen (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Batzordean hirian izandako zuhaitz mozketei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Jakinekoa da hiriko zuhaiztiak zeinen garrantzitsuak diren hiriko ingurumen kalitatearentzat, eta, ondorioz, herritarren bizi kalitatearentzat. Jabetzen garen baino rol eta esanahi handiagoa dute zuhaitzek: soziala, kulturala, emozionala, sinbolikoa, paisaiari lotutakoa, historikoa, psikologikoa eta abar.

**11. Moción de control conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU e IRABAZI, sobre la tala de árboles.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, y Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes sobre la tala de árboles en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Es de sobra conocida la importancia del arbolado urbano sobre la calidad ambiental de la ciudad y, por tanto, sobre la calidad de vida de los ciudadanos. El árbol tiene un papel y un significado superior al que muchas veces percibimos: social, cultural, emocional, simbólico, paisajístico, histórico, psicológico, etc.

Zuhaiztien ekarpena ez da hiriari ematen dioten itxura estetikora mugatzen, ezta haiei atxiki diegun ondarezko baliora ere: aprobetxatzen ditugun onura funtzionalak ere badaude ekarpen horren oinarrian.

Hauek dira adibideetako batzuk:

• Tenperatura eta mikroklima efektuak murrizten dituzte. Tenperatura da hirigintza prozesuek gehien eragiten dioten aldagai meteorologikoetako bat. Hiri erdialdean, balio handiagoak erregistratu ohi dira natura ingurunean baino. Egindako azterketetan egiaztatu da alde handiak zeudela zuhaitzekin eta zuhaitz gabe aztertutako patroien artean. Kasu batzuetan, 4°C-ra ere iristen zen tenperatura diferentzia eta % 11ra hezetasun diferentzia.

• Airearen kutsatzaileak gutxitzen dituzte. Zuhaitzek airearen kutsatzaile gaseosoak gutxitzen dituzte haiek barnean edo kanpoan hartuz.

• Eraikinetako energian eragiten dute. Zuhaitzak haize babes moduan aritzen dira, eta, neguan, berogailua erabiltzeko premia gutxitzen da haiei esker; udako hilabeteetan, berriz, itzala ematen dute, eta aire egokituaren erabilera gutxitzen dute. Zuhaiztien eremua % 10 handituko balitz, posible izango litzateke berokuntzan eta hozte sistemetan erabiltzen den energia % 5-10 gutxitzea.

• Zuhaitzek ura kontserbatzen dute eta lurraren higadura gutxitzen dute. Ekaitz bateko ur emariaren abiadura eta bolumena, uholdeek eragindako kalteak eta uraren kalitateari lotutako tratamenduen kostuak eta arazoak murriztu ditzakete.

La aportación del arbolado no sólo viene determinada por el efecto estético que aporta a la ciudad, ni siquiera por el valor patrimonial que hemos otorgado al mismo, sino que también se fundamenta en los beneficios funcionales que aprovechamos.

Como ejemplo de ello tenemos:

• Reducción de la temperatura y efectos microclimáticos. La temperatura es una de las variables meteorológicas más sensibles a los procesos de urbanización, registrándose valores superiores en el centro de la ciudad, respecto a su entorno natural. En estudios realizados se ha demostrado que existían diferencias significativas entre los patrones estudiados con árboles/sin árboles, llegando en algunos casos a 4°C de diferencia de temperatura y de hasta un 11% de diferencia en humedad.

• Disminución de los contaminantes atmosféricos. Los árboles disminuyen los contaminantes gaseosos del aire por medio de la captación interna y externa.

• Efectos energéticos en las construcciones. Los árboles actúan como corta vientos que reducen los requerimientos de calefacción en invierno y aportan sombra en los meses de verano, reduciendo con ello el uso de los aires acondicionados. Un aumento del 10% de la cobertura del arbolado podría reducir la energía usada para calefacción y refrigeración entre un 5-10%.

• Los árboles conservan el agua y reducen la erosión del suelo. Pueden reducir la velocidad y volumen de la escorrentía de una tormenta, los daños por inundaciones, los costos por tratamientos y los problemas de calidad de agua.

• Zuhaiztiek hots kutsadura murrizten dute. Hiriko zuhaiztiek pantaila efektua burutzen dute, zaratak nabarmen arinduz.

Nazio Batuen Erakundeak hau dio: “Hirietako zuhaitz handiak iragazki bikainak dira hirietako kutsatzaileentzat eta partikula txikientzat. Zuhaitzek elikagaiak ematen dituzte, besteak beste, fruta, fruitu lehorrak eta hostoak. Zuhaitzen ondoan denbora pasatzeak osasun fisikoa eta buru osasuna hobetzen laguntzen du, energia maila handituz eta errekuperazio denbora hobetuz. Era berean, presio arteriala eta estresa gutxitzen ditu. Zuhaitzak eraikinen inguruan behar bezala kokatuz gero, aire egokitua erabiltzeko premia % 30 murrizten da, eta berogailuaren erabileran % 20 eta % 50 artean aurrezten da. Zuhaitzek habitata, elikagaiak eta babesa eskaintzen dizkiete landareei eta animaliei, hiriko bioaniztasuna handituz”.
(http://www.fao.org/resources/infographics/infographics-details/es/c/411598/)

2017ko maiatzean, Eskolako Agenda 21 proiektuaren baitan, Donostiako ikasleen lanaren aurkezpenean izan ginen. Hau zioen ateratako ondorioetako puntu batek: “Ez moztu zuhaitz gehiago, eta gaixorik daudelako moztu behar badira, beste batzuk landatu, baina izan daitezela espezie autoktonoak”. Erabat ados gaude eskaera horrekin, eta aurkezpen hartan izan ziren guztiek txalotu zuten, baita gobernuko kideek ere.

Eskolako Agenda 21eko ikasleek azaldutako kezka berresten dute herritarrek egindako kexa eta galdera ugariek. Zuhaitz mozketa bakoitzeko, gutxienez aipamen bat egiten da sare sozialetan, edo artikuluren bat, edo sarreraren bat blogean, edo galdera bat egiten zaie udal taldeei (besteak beste, Boulevarden, miniestadio inguruan, Cristina Enean, Sarriegi plazan eta Errondo pasealekuaren aurreko aldean egindako zuhaitz mozketei buruzko

• El arbolado reduce la contaminación acústica. El arbolado urbano ejerce un efecto pantalla mitigando en gran medida los ruidos.

Según las Naciones Unidas “los grandes árboles de las ciudades son excelentes filtros para los contaminantes urbanos y las pequeñas partículas. Los árboles proporcionan alimentos, como frutas, frutos secos y hojas. Pasar tiempo cerca de los árboles mejora la salud física y mental aumentando los niveles de energía y la velocidad de recuperación, a la vez que descienden la presión arterial y el estrés. Los árboles colocados de manera adecuada entorno a los edificios reducen las necesidades de aire acondicionado en un 30% y ahorran entre un 20% y un 50% de calefacción. Los árboles proporcionan habitat, alimentos y protección a plantas y animales, aumentando la biodiversidad urbana.”
(http://www.fao.org/resources/infographics/infographics-details/es/c/411598/)

El 17 del mes de mayo 2017 asistimos a la presentación del trabajo de los y las alumnas de Donostia en el marco de la Agenda Escolar 21. Un punto de las conclusiones a las que llegaron es: “No talar más árboles y si se talan porque están enfermos plantar otros pero que sean especies autóctonas”. No podemos estar más de acuerdo con esa petición, y todos y todas las asistentes en aquella presentación la aplaudieron, miembros del Gobierno incluidos.

La preocupación formulada por los y las alumnas de la Agenda Escolar 21 viene corroborada por numerosas quejas o preguntas de la ciudadanía. Para cada tala de árbol existe por lo menos una mención en redes sociales, o un artículo, o una entrada de blog, o una pregunta formulada a los grupos municipales (hemos recibido quejas de forma directa sobre tala de árboles en el Boulevard, el entorno del mini estadio, Cristina Enea, la

kexak jaso ditugu zuzenean).

Herritarrek zuhaiztien inguruan agertzen duten kezka gero eta handiagoari erantzuteko, interesgarria izango litzateke mozteko arrazoiei eta trukean hartuko diren neurriei buruzko informazioa ematea in situ edo Internet bidez.

Batzordean jakin genuen mozteko proposamena Parke eta Lorategien Bulegoak egin dezakeela, edo, bestela, enpresa esleipendunak, hau da, Pagolak. Normalean, enpresa hori bera arduratzen da zuhaitzak mozteaz. Mozteko proposamena Parke eta Lorategien Bulegoaren eta Pagolaren artean lantzen da. Azken horrek ere baditu gaian adituak diren langileak.

Alabaina, Udalak ez du sistematikoki sinatzen beste batek proposatutako mozketarekin ados dagoela esaten duen dokumentua. Beraz, gerta daiteke azpikontratatutako enpresak mozketa bat proposatzea eta ondoren mozketa hori egitea, eta Udalak sinatutako dokumenturik ez egotea. Protokolo bat idazten ari dira, eta gure ustez, ekimen egokia da; alabaina, ez dakigu protokolo horretan nahitaezkotzat jotzen den proposatutako mozketa bakoitzean Udalak sinatutako dokumentu bat egotea.

Azkenik, zuhaiztien mantenua Parke eta Lorategietako Bulegotik soilik kudeatzen da. Zehatz-mehatz esanda, zuhaitz bakoitzaren kudeaketaren berri bulego horrek du. Baina hiriko zuhaiztien kopuruari eta haien banaketa globalari buruz ari garenean, interesgarria iruditzen zaigu Ingurumen Departamentuaren ikuspegi teoriko eta “makro” bat izatea. Hori dela eta, onuragarria izango litzateke Mantenu eta Ingurumen bulegoen artean lankidetzarako edo elkarrekin komunikatzeko moduren bat finkatzea.

Plaza Sarriegi, en frente del paseo Errondo …).

Por ese motivo sería interesante, para atender a la creciente preocupación de la ciudadanía sobre el arbolado, aportar información in situ o por internet sobre los motivos de la tala y las medidas compensatorias.

En Comisión pudimos saber que las propuestas de tala pueden venir del propio Negociado de Parques y Jardines o de la empresa adjudicataria, es decir Pagola; y que esa misma empresa, habitualmente, es la que se encarga de realizar la tala. Las propuestas de tala son contrastadas entre los técnicos de Parques y Jardines y Pagola que cuenta también con personal experto en la materia.

Sin embargo, no es sistemática la firma, por parte del Ayuntamiento, de un documento de conformidad sobre una tala propuesta por un tercero. Nos podríamos encontrar entonces en situaciones donde la empresa subcontratista propone y posteriormente ejecuta una tala, sin que exista un documento municipal firmado. Se está trabajando la redacción de un protocolo, una iniciativa positiva a nuestros ojos, pero no sabemos si ese protocolo incluye la obligatoriedad de un documento municipal firmado para cada tala que se plantea realizar.

Para terminar, el mantenimiento del arbolado se gestiona exclusivamente desde el Negociado de Parques y Jardines. A nivel pormenorizado, el conocimiento sobre gestión de cada árbol lo tiene ese Negociado. Pero cuando hablamos de cantidad y repartición global del arbolado en la ciudad, nos parecería interesante tener el punto de vista teórico y “macro” del Departamento de Medio Ambiente. Por ese motivo sería beneficioso establecer alguna forma de cooperación o comunicación entre Mantenimiento y Medio Ambiente.

Hori guztia dela eta, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, zuhaitzak mozten direnean, herritarrei mozteko arrazoien berri emateko eta trukean hartuko diren neurriei buruzko informazioa emateko.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio urtero urteko memoria bat prestatzeko eta publiko egiteko, egindako mozketak zehaztuz eta horretarako arrazoiak zein izan diren eta trukean zein neurri hartu diren jakinaraziz.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio zuhaiztien kudeaketarako protokoloa amai dezala eta martxan jar dezala 2018ko uztaila baino lehen.

4. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio zuhaitz mozketa bakoitza arrazoituta egon dadila eta sinatutako udal dokumentu baten bidez baimenduta egon dadila.

5. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio jar ditzala lankidetzarako moduak Hiri Mantentze eta Zerbitzuen departamentuaren eta Ingurumen departamentuaren artean, hiriko zuhaiztien planifikazioa hobetu ahal izateko.

6. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio hiri eremu berde bat manten dezala, ahal den heinean, espezie autoktonoei emanez lehentasuna.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a informar a la ciudadanía, cuando se realiza una tala de árbol, de los motivos de la misma y de las medidas compensatorias previstas.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar y hacer pública cada año una memoria anual que detalle las talas realizadas, sus motivaciones y las compensaciones realizadas.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a finalizar y a poner en marcha el protocolo de gestión del arbolado antes de julio 2018.

4. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que cada tala de árbol esté motivada y autorizada por un documento municipal firmado.

5. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a establecer cauces de cooperación entre los Departamentos de Mantenimiento y Servicios Urbanos y de Medio Ambiente con el fin de mejorar la planificación del arbolado en la ciudad.

6. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a mantener un espacio urbano verde priorizando, en la medida de lo posible, las especies autóctonas.

Donostia, a 20 de abril de 2018

Sin.: Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu taldeko zinegotzia

Sin.: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

Fdo. Ayem Oskoz Urrutikoetxea
Concejal del Grupo EH Bildu

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea, D. Loïc Alejandro y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**12. Kontrol Mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, Laneko segurtasun eta osasunari buruzkoa.**

"Egiaztatuta dago lan-ezbeharren kopuruak gora egin duela azpikontratazioen eraginez eta Lan Ikuskaritzak lanpostuetako egoera kontrolatzeko dituen gabezien eraginez. Azken hiru urteotan, 180 euskal langile hil dira laneko istripuetan. 2017an, lanaldian zehar gertatutako istripuetatik 29.443 arinak izan ziren ((+% 5,5); 161, larriak (+ %16,7); eta 25ek heriotza eragin zioten langileari. In itinere" izandako istripuetatik 3.890 izan ziren arinak (+% 11,8); 38, larriak (+% 40,7); eta heriotza eragin zuten istripuak zazpi izan ziren,

**12. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre seguridad y salud laboral.**

"La creciente siniestralidad laboral fruto de la subcontratación y de las carencias que la Inspección de Trabajo cuenta para poder controlar la situación de las personas trabajadoras en sus puestos de trabajo es un hecho constatado. En los últimos tres años, 180 trabajadores y trabajadoras vascas han muerto en accidente de trabajo. Del total de accidentes en jornada de trabajo producidos en 2017, 29.443 fueron leves (+5,5%), 161 graves (+16,7%) y 25 mortales. Los siniestros 'in itinere' de carácter leve fueron 3.890

2016an baino bat gehiago. Eraikuntza izan zen lan-istripu gehien izan zituen sektorea (mila okupatuko, 86,2 baja), eta haren atzetik, lehen sektorea (mila okupatuko, 75,5 baja), industria (mila okupatuko, 65,3 baja) eta zerbitzuak (mila langileko, 27,4 baja).

(+11,8%), los graves fueron 38 (+40,7%) y los mortales siete, uno más que en 2016. El sector con mayor siniestralidad laboral fue la Construcción (86,2 bajas por cada mil ocupados), seguido de Primario (75,5 bajas por cada mil ocupados), Industria (65,3 bajas) y Servicios (27,4 bajas por cada mil trabajadores).

Osalanek argitaratutako azken datuek erakusten dute egoera ez dela hobetzen ari, baizik eta kontrakoa: nabarmen ari da okertzen, eta laneko ezbeharren erritmoa gero eta bizkorragoa da. Lan-ezbeharrek etengabe hazten jarraitzen dute, eta gainera, gero eta azkarrago. 2017. urtean, guztira, %5,7 ugaritu ziren baja eragin zuten istripuak; bada, urtarrilean, %11,1eko urte arteko igoera izan da. Beraz, hobetzeko joera izan beharrean, okerrera ari da egiten egoera, eta gero eta bizkorrago. Gainera, ezbeharren igoerarik handiena lanaldian zehar gertatzen da: tarte horretan, %11,7 ugaritu dira; laneko desplazamenduetan erregistratutakoak, ‘in itinere’ esaten zaienak, berriz, gutxiago ugaritu dira, %2,7. Istripuen larritasunari dagokionez, nabarmentzekoa da 2018ko lehen bi hilabeteetan 2017. urtean baino %36 istripu larri gehiago izan direla, eta 2017an ere aurreko urtean baino gehiago izan zirela halakoak. Gainera, istripu gehiago gertatzearen arrazoia ez da lan-jarduera handitu izana. Izan ere, intzidentzia-indizea ere handitu egin da, hau da, 1.000 langileko gertatzen diren istripuen indizea 2,78tik 3,03ra igo da. Ez gara hutsalkeria bati buruz ari, baizik eta laneko segurtasun eta osasuna bermatzeko premiaz.

Los últimos datos publicados por Osalan reflejan que la situación lejos de mejorar, sufre un claro empeoramiento, creciendo la siniestralidad laboral cada vez a mayor ritmo. La siniestralidad laboral no para de crecer y lo hace cada vez a mayor ritmo. Si 2017 cerró con un aumento de los accidentes con baja del 5,7%, en enero el incremento interanual ha sido del 11,1%. Por lo tanto, la tendencia lejos de aminorarse se acelera. Además, el mayor aumento se produce durante la jornada laboral, donde los siniestros crecen un 11,7%, mientras que los registrados en los desplazamientos al trabajo, los denominados 'in itinere', suben en menor medida, un 2,7%. En cuanto a la gravedad de los accidentes en jornada, cabe destacar que en los dos primeros meses de este año 2018, se ha producido un incremento respecto a 2017 del 36%, que sumado al incremento que se produjo ya en 2017 respecto al año anterior, resulta alarmante. Un incremento, en cualquier caso, que no se puede achacar a la mayor actividad laboral, porque el índice de incidencia, es decir, los accidentes por cada 1.000 trabajadores, también crece al pasar del 2,78 a 3,03. No es una cuestión menor, estamos hablando de la necesidad de garantizar la seguridad y la salud en el trabajo.

Beste kapitulu bat merezi dute laneko gaixotasunek, izugarri ugaritu baitira azken urteotan. Hala, laneko istripu batean hildako pertsona bakoitzeko, laneko gaixotasunen bat dela-eta 18 lagun hil dira. Euskadin, iaz, baja eragin zuten laneko beste 1.445 gaixotasun

Un capítulo aparte merecen las enfermedades profesionales, las cuales se han disparado en los últimos años. Así, por cada muerto en accidente laboral, hay 18 fallecidos por enfermedad profesional. Euskadi contabilizó el pasado año 1.445 enfermedades profesionales

zenbatu ziren. 2016an zenbatutakoekin alderatuta, %25,9koa da igoera.

nuevas que causaron baja laboral, lo que supone un ascenso del 25,9 por ciento con respecto a las contabilizadas en 2016.

Lan-ezbeharrek lotura estua dute gero eta ohikoagoa den lan-prekarietatearekin eta langile gehienak jasaten ari diren lan-eskubideen galerarekin. Hori dela eta, beharrezkoa da presazko neurriak hartzea egoera hau geldiarazteko.

La siniestralidad laboral está íntimamente ligada a la creciente precariedad laboral, a la pérdida de derechos laborales por parte de la mayoría social trabajadora. Por ello, es preciso desarrollar medidas urgentes para poner freno a esta situación.

Donostia ez da errealitate horretatik kanpo gelditzen. Zerbitzuen sektorea da hiriko ardatz nagusia, merkataritzak eta ostalaritzak osatzen dute BPGaren %25a, eta prekarietatea eguneroko ogi bilakatu da. Hala, beharrezkoa da lan-baldintzak duintzeko neurriak hartzea eta Osalanek eta Lan Ikuskaritzak kontrol handiagoa egitea. Udalak, enplegatzaile eta zerbitzu publikoen emaile den heinean, eredu izan behar du lan-baldintzak kontrolatzeko orduan, bai bere langileen baldintzei dagokienez, bai obra eta zerbitzu publikoak emateko azpikontratatutako enpresetako langileen baldintzei dagokienez.

Donostia no se escapa de esta realidad. Una ciudad volcada en el sector servicios, con un 25% del PIB en comercio y hostelería, donde la precariedad se ha convertido en norma, son necesarias medidas para dignificar las condiciones laborales y un mejor control por parte de Osalan y la Inspección de Trabajo. El Ayuntamiento, como empleador y prestador de servicios públicos, tiene que ser referente en el control de las condiciones laborales tanto del personal propio como del que subcontrata para la ejecución de obras y servicios públicos.

Sindikatuek behin baino gehiagotan salatu izan dute gure hiriko obra publiko nagusietan oso ohikoa dela prekarietatea; hori dela eta, eskatzen dugu prekarietate-errealitate horri konponbidea aurkitzeko, langile gehienek jasaten duten lan-eskubideen eta eskubide sozialen urraketa mugatuko duten politika aktiboen bidez.

Los sindicatos vienen denunciando que la precariedad en las principales obras públicas en nuestro municipio se ha convertido en norma y por ello, emplazamos a dar solución a la realidad de precariedad con políticas activas que pongan coto a la vulneración de derechos laborales y sociales que sufre la mayoría social trabajadora.

Apirilaren 28a Laneko Segurtasun eta Osasunaren Munduko Eguna denez, hau aurkezten dugu:

Siendo el próximo 28 de abril, el Dia mundial de la Seguridad y Salud en el Trabajo, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala kontratu bakoitzaren baldintza orrietan ezarritako klausulak estu-estu betetzen direla, eta, batez

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a que, lleve a cabo un exhaustivo control del cumplimiento estricto de las cláusulas sociales

ere, hitzarmen kolektibo bakoitzeko lan baldintzak eta laneko segurtasun eta osasunaren arloko neurriak betetzen direla.

establecidas en los pliegos de condiciones de cada contrato, en especial, del cumplimiento de las condiciones laborales de cada convenio colectivo y de las medidas en materia de seguridad y salud laboral.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari behar diren neurriak jar ditzala abian, sortzen duen enplegua (bai zuzenean, bai Donostia UP eta halako programen bidez) kalitatekoa eta eskubideak ematen dituena izan dadin, are laneko segurtasunari eta osasunari dagokionez ere.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a poner en marcha las medidas necesarias para garantizar que el empleo que genera (bien sea de manera directa, bien a través de programas como del denominado Donostia UP) sea empleo de calidad y con derechos, incluida la seguridad y salud laboral.

Donostia, 2017ko apirilaren 20a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Donostia a 20 de abril de 2017

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**13. Kontrol Mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, animalien abandonuaren eta haiei tratu txarrak ematearen aurkako kanpainei buruzkoa.**

**13. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre campañas contra el abandono y el maltrato animal.**

"Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau

"Loïc Alejandro, concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta

aurkezten du, hil honetan Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean animalien abandonuaren eta haiei tratu txarra ematearen aurkako kanpainei buruz egindako interpelazioaren harira.

JUSTIFIKAZIOA

Duela urtebete, 2017ko apirilean, gure udal taldeak ekimen bat aurkeztu zuen, animaliak abandonatzearen aurkako kanpainak egiteko. Mozio hartatik, puntu hau onartu zen, Gobernuaren aldeko botoarekin: “Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio animaliak abandonatzearen eta haiei tratu txarrak ematearen aurkako sentsibilizazio-kanpaina bat edo batzuk egin ditzala”.

Ordutik, Udal Gobernuak etxean animalia bat izateak dakartzan ardurei buruzko 17 solasaldi egin ditu eskoletan, sentsibilizatzeko. Oso ondo iruditzen zaigu, baina gure ustez, ez da aski, arrazoi hauengatik:

• Solasaldi horiek haurrei daude zuzenduta (eta haiekin batera daude irakasleei). Sentsibilizazio-kanpaina ez zaie hiritar guztiei zuzentzen.

• Solasaldiek maskota bat izateak dakartzan ardura, betebehar eta zaintza-lanak dituzte ardatz. Alabaina, 2017ko apirileko mozioak animalien abandonua eta haien aurkako tratu txarrak lantzea proposatzen zuen, bi gai horietan sakontzeko beharra dagoelako.

• Solasaldietan maskotak hartzen dira ardatz moduan, baina animalien aurkako tratu txarren gaia zabalagoa da.

Gogoratu behar dugu, esku artean ditugun azken datuen arabera, 137.782 txakur eta katu

la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, fruto de la interpelación realizada este mes en Comisión de Desarrollo y Planififcación del Territorio sobre campañas contra el abandono y maltrato animal.

JUSTIFICACIÓN

Hace ahora un año, en abril de 2017, nuestro grupo municipal presentó una iniciativa para elaborar campañas contra el abandono animal. De aquella moción se aprobó, con el voto favorable del Gobierno, el punto siguiente que decía: “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar una o varias campañas de sensibilización en contra del abandono y del maltrato animal.”

Desde entonces, el Gobierno municipal ha realizado 17 charlas, en centros escolares, de sensibilización sobre las responsabilidades que conllevan tener un animal de compañía. Nos parece muy positivo, pero no suficiente; por distintas razones:

• Las charlas realizadas van dirigidas a los y las niñas (y el profesorado presente). La sensibilización no se dirige a toda la ciudadanía.

• Las charlas están centradas en las responsabilidades, obligaciones y cuidados que conllevan el hecho de tener una mascota, mientrás que la propuesta de la moción de abril 2017 se centraba en el abandono y el maltrato, dos temas en los que hay que incidir especialmente.

• Las charlas se centran en las mascotas, pero el tema del maltrato animal es más ámplio.

Debemos recordar que según las últimas cifras que contamos, en el año 2016, según un

abandonatu zirela 2016an Estatuan (Affinity Fundazioak argitaratutako txostena). Animaliak babesteko elkarte batzuek ziurtatzen dute kopuru hori are handiagoa izango litzatekeela borondatez jasotako animalien kasuak ere zenbatuko balira. EAEko datuak ez dira askoz hobeak: urtero, Euskadin, txakur, katu eta bestelako 8.000 maskota abandonatzen dira.

Donostia ez da errealitate horretatik kanpo gelditzen. Iazko maiatzean eta ekainean, abandonatutako 120 txakurri eman zitzaien aterpea. Kopuru handia da, eta animalien abandonuaren arazoak gu ere gertutik ukitzen gaituela erakusten du.

Animalien aurkako tratu txarrei buruz, nabarmentzekoa da arazo hori handitu egin dela. 2014ko ekitaldiari buruzko memorian, hiru lurralde historikoetako fiskalen iritziz, “animaliei emandako tratu txarrekin lotutako legez kontrako ekintzak nabarmen areagotu dira”. Hain zuzen ere, aurretiazko diligentzien kopurua bikoiztu egin zen EAEn 2013 eta 2014 urteen artean: “33tik 60ra igo ziren Bizkaian, 1etik 16ra Gipuzkoan eta 2tik 8ra Araban”. Gainera, datu horiei polizia etxeetan, udaletan eta foru aldundietan administrazio bidetik aurkeztutako salaketak gehitu behar zaizkie. Donostiako kasuan, 15 izan dira 2015ean nahiz 2016an.

Donostiako Udaleko Osasun Publikoaren eta Animalien Ongizatearen Zerbitzuaren 2016ko memoriaren arabera (ez dago berriagorik), “gizartean sentsibilitate maila handiagoa dago animaliei emandako tratu txar egoeren aurrean”. 2016an, 21 salaketa egin ziren, eta horietatik 15, etxeko animaliei buruzkoak ziren; gainerakoak, berriz, beste espezie batzuei buruzkoak ziren (hegaztiak, ardiak, etab.).

Herri askok sustatzen dituzte abandonuaren

informe publicado por la Fundación Affinity, se produjeron 137.782 casos de abandono de perros y gatos en todo el Estado, datos que algunas protectoras garantizan aumentarían de contabilizarse los casos de recogida voluntaria independiente. Los datos en la CAE no son más alentadores: cada año en Euskadi se abandonan unos 8.000 perros, gatos y demás mascotas.

Donostia no se escapa a esta realidad. En los meses de mayo y junio del pasado año se llegó a alojar 120 perros abandonados. Son cifras importantes que demuestran que la problemática del abandono animal nos toca de cerca también.

En relación al maltrato animal, es preciso indicar que tal problemática ha incrementado. Así, en la memoria publicada del ejercicio 2014, los fiscales de los tres territorios históricos consideran “significativo el notable incremento de los ilícitos referidos a malos tratos a animales”. De hecho, el número de diligencias previas se duplicó en la CAV entre 2013 y 2014, pasando “de 33 a 60 en Bizkaia, de 1 a 16 en Gipuzkoa y de 2 a 8 en Araba”. A estos datos, habría que añadir las denuncias interpuestas por vía administrativa ante las comisarías, ayuntamientos o diputaciones que, en el caso sólo de Donostia, se elevan a 15, tanto en 2015 como en 2016.

La memoria 2016 del Servicio de Salud Pública y Bienestar Animal del Ayuntamiento de Donostia (no hay memoria más reciente) dice que “existe un mayor grado de sensibilidad en la sociedad ante las situaciones de maltrato animal. En 2016 han habido 21 denuncias, de las cuales 15 se referían a animales domésticos de compañía. Las otras 6 se refirieron a otras especies como pueden ser aves, ovejas, etc.”

Son numerosos los municipios que promueven

aurkako kanpainak eta apustu egiten dute herritarrak animalien abandonuaren arazoaren gainean kontzientziatzeko; horrez gain, kontsumismo arduragabearen aldean adopzioak duen garrantzia nabarmentzen dute.

Beharrezkoa da Udal Administrazioa animaliei tratu txarrak ematearen aurkako borrokan inplikatzea. Epe luzera begira, iruditzen zaigu Udalak, Ingurumenaren Aholku Batzordearen baitan, lankidetzan aritu behar lukeela animalien aldeko elkarteekin, animalien abandonuaren eta haiei tratu txarrak ematearen aurkako osoko estrategia bat prestatzeko.

Hori dela eta, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak herritar guztiei zuzendutako animalien abandonuaren eta haiei tratu txarrak ematearen aurkako sentsibilizazio kanpaina bat egin dezala 2018ko uda baino lehen eskatzen dio Udal Gobernuari.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio egin dezala, Udaltzaingoarekin lankidetzan, hirian animaliei tratu txarrak ematearen aurkako borroka plan bat.

Donostia, 2018ko apirilaren 20an

Sin.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

campañas contra el abandono y que apuestan por concienciar a la ciudadanía en torno al problema del abandono animal y la importancia de la adopción frente al consumismo irresponsable.

Es necesaria la implicación de la administración municipal en la lucha del maltrato animal. A largo plazo, consideramos que el Ayuntamiento debería trabajar de forma coordinada con asociaciones animalistas, en el seno del Consejo Asesor de Medio Ambiente, para elaborar una estrategia integral contra el abandono y el maltrato animal.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar, antes del verano 2018, una campaña de sensibilización, dirigida a toda la ciudadanía, en contra del abandono y del maltrato animal.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar, en colaboración con la Guardia Municipal, un Plan de lucha contra el maltrato animal en la ciudad.

Donostia a 20 de abril de 2017

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D. Loïc Alejandro y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**14. Kontrol Mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, irakurketa errazari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hilabete honetako Zerbitzu Orokorren Batzordean IRAKURKETA ERRAZARI buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko irailean, gure taldearen ekimenez aurkeztutako mozio bat onartu zuen Udalbatzak, irakurketa errazari buruzkoa eta irakurketa errazaren irizpideen barruan sartzen diren materialak sortzea sustatzeari buruzkoa. Administrazioak berak egiten dituen dokumentuak hiritar guztientzat irisgarriago izatea da helburua.

Hiritarrek mota horretako dokumentuetara iristeko aukera gehiago izateaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu hiritar guztiek mota guztietako material eta liburuetara iristeko aukera izatea ere, hau da, kulturara iristeko aukera orokortzearen alde egitea. Izan ere, Euskadin, pertsonen %30ek dituzte irakurketa

**14. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre lectura fácil.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES del presente mes, en relación con LECTURA FÁCIL.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de septiembre el Pleno aprobó una moción a iniciativa de nuestro grupo relativa a la lectura fácil y el fomento de la creación de materiales bajo los criterios de lectura fácil para mejorar la accesibilidad de toda la población a los documentos que la propia administración elabora.

Más allá de mejorar la accesibilidad de la ciudadanía a este tipo de documentos, consideramos importante avanzar igualmente en el acceso de toda la ciudadanía a la lectura de todo tipo de materiales y libros fomentando la universalización del acceso a la cultura en general, ya que en Euskadi, se cuantifica en

zailtasunak.

Udal Gobernuak gai horri lotuta zer aurrera pauso eman dituen galdetuta, batzordean iragarri ziguten amaitzen ari direla udal gardentasun ereduko dokumentua, eta ekintza plan bat ere prestatzen ari direla.

Ontzat ematen dugu Udal Gobernua hiritarrekin komunikatzeko irakurketa errazeko irizpideak sartzeko pausoak ematen ari dela jakitea. Alabaina, iruditzen zaigu beharrezkoa dela plan horren xehetasunak udal taldeekin partekatzea; era berean, egokia litzateke taldeei planari buruzko ekarpenak egiteko aukera ematea, haiek hala nahi izanez gero.

Horrez gain, iruditzen zaigu irakurketa errazari buruzko ezagutza eta haren garapena hedatu egin behar direla. Horretarako, hirian irakurketa errazeko taldeak sortzea izan daiteke tresna egoki bat. Kulturarako irisgarritasuna orokortzeko bideak aztertzeak, kasu honetan irakurketaren bidez, aukera emango luke hiritarrei oinarrizko eskubide hori areagotzeko.

Hori guztia dela eta, eta apirilaren 23a Liburuaren Munduko Eguna dela baliatuta, iruditzen zaigu premiazkoa dela irakurketa errazeko irizpideak sartzea dokumentu publikoak osatzerakoan; baina, horrez gain, beharrezkoa iruditzen zaigu irakurketarako irisgarritasuna orokortzea irakurketa errazeko taldeak sortuz. Horrenbestez, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, udalaren irakurketa errazari

un 30% el número de personas con dificultades lectoras.

Al ser cuestionado por los avances que se han dado por parte del gobierno municipal en la materia, se nos avanzó en comisión que se está ultimando el documento con el modelo de transparencia municipal así como el Plan de Acción.

Sin embargo y a pesar de valorar positivamente que el gobierno municipal esté dando pasos en la implantación de criterios de lectura fácil en su comunicación con la ciudadanía creemos que sería necesario un contraste con los grupos municipales con el objeto de conocer los detalles del Plan así como abrir la posibilidad de recibir aportaciones al mismo si así se estimara oportuno por parte de los grupos.

Igualmente, consideramos que debe de ampliar el desarrollo y conocimiento de la lectura fácil y es por ello que una herramienta útil para ello puede ser la creación de clubs de lectura fácil en la ciudad. Analizar y explorar diferentes vías para universalizar el acceso a la cultura, en este caso, a través de la lectura posibilitaría que el conjunto de la ciudadanía amplíe este derecho básico.

Por todo lo anteriormente expuesto, y coincidiendo que el 23 de abril, se celebra el Día mundial del Libro, entendemos urgente avanzar en la incorporación de criterios de lectura fácil en la elaboración de documentos públicos, pero igualmente, consideramos necesario universalizar el acceso a la lectura mediante la creación de clubs de lectura fácil. De este modo, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que

buruzko ekintza plana martxan jarri aurretik, udal taldeekin parteka dezala plan hori.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio, Donostia Kulturaren baitan, udal liburutegietan irakurketa errazeko taldeak sortzea bultza dezala.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

contraste con los grupos municipales el Plan de Acción sobre Lectura Fácil del Ayuntamiento antes de su puesta en marcha.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a impulsar en el seno de Donostia Kultura la creación de club de lectura fácil en las bibliotecas municipales.

Donostia a 20 de Abril de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Juan Ramón Viles Mitxelena y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**15. Kontrol Mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, soinu eta zarataren ordenantzaren betekizun mailaren ingurukoa.**

"Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 16an Lurralde Garapeneko Batzordean aztertutako interpelazioaren

**15. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el nivel de cumplimiento de la ordenanza de ruidos y vibraciones.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada el 16 de abril de

ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 28an erregistro bidez jaso genuen Bartzelona Etorbideko 24. zenbakiko bizilagunek aurkeztutako kexa eta txostena. Txostenean irakur daitekeen bezala, bizilagun hauek 2017ko uztailaren 4an aurkeztu zuten lehenengo kexa, etxe azpian duten tabernak eragiten duen zarataren inguruan.

Bizilagunek diote zarata maila altuegia dela eta eta Udalaren erantzun falta ikusita, teknikari bat kontratatu dutela tabernak sortutako zarataren neurketa egiteko. Otsailean, erregistro bidez txosten tekniko hori aurkeztu zuten eta bertan adierazten da dagoeneko sei kexa aurkeztu dituztela, baina Udalak ez diola irtenbiderik eman arazoari.

Aurkeztutako txosten teknikoan bizilagunen egoera hobetzeko hainbat proposamen egiten dira, baina, oraingoz, Udalak ez die adierazi zer egingo duen.

Udalaren aldetik erantzun falta hau ikusita, gaia batzordeetara eraman dugu. Bertan, delegatuaren erantzuna izan da soinu eta zarataren ordenantzan jasotzen dela prozedura hasteko bizilagunen salaketa bat beharrezkoa dela eta salaketarik ez dagoenez, ezin dutela prozedura hasi.

Soinu eta zarataren kutsadura dela eta Udalak hartuko beharreko jarrera arautzen duen ordenantza kontsultatzen badugu, ordea, delegatuak esandakoa eta ordenantzak jasotzen duena ez datoz bat.

2018 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

El 28 de febrero, recibimos, vía registro, las quejas y el informe presentados por el vecindario del nº 24 de la avenida de Barcelona. Tal como se refleja en el informe, estas personas presentaron su primera queja el 4 de julio de 2017, queja referente al ruido originado por el bar que hay debajo de sus casas.

El vecindario afirma que el nivel de ruido es demasiado alto y que, vista la falta de respuesta por parte del Ayuntamiento, contrataron a un técnico para que midiera el ruido generado por el citado establecimiento. En febrero, presentaron mediante registro el informe técnico, en el que se señalaba que ya habían presentado seis quejas, pero que el Ayuntamiento no había dado ninguna solución al problema.

En dicho informe, se plantean varias propuestas dirigidas a mejorar la situación del vecindario, pero, por el momento, el Ayuntamiento no les ha comunicado qué piensa hacer.

Viendo que el Ayuntamiento no ha respondido, llevamos el tema a las comisiones. La respuesta que nos ha dado el delegado ha sido que en la ordenanza de ruidos y vibraciones se establece que, para dar inicio al procedimiento, es necesario que el vecindario presente una denuncia y que, como no la han presentado, no se puede iniciar.

Sin embargo, si consultamos la ordenanza que regula la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones, comprobamos que las manifestaciones del delegado no coinciden

con lo reflejado en dicha norma.

Ordenantzan honako hau irakur daiteke:

27. art. Administrazio-eskumena. Ikuskapen eta kontrol gaitasuna.

Donostiako Udalari dagokio Ordenantza honetan ezarritakoa betetzen den kontrolatzea eta, bere eskumenen barne, jarduerei eta bereziki, jarduera sailkatuei buruzko gainontzeko arautegia betetzen den zaintzea; exigitzea, era berean, ofizioz zein alde baten eskariz eta gai honen inguruan, bizilagunen babeserako beharrezko diren neurri prebentibo, zuzentzaile edo konpontzaileak har dadin; agintzea, bide batez, egoki irizten dituen ikuskapen guztiak, eta jardueren funtzionamendu egokia egiaztatzeko bere iritzian behar dituen egiaztagiri guztiak exigitzea; behar diren aginduak ematea, urratutako legaltasuna bete dadin; eta zigor ahalmena erabiltzea, arau hau edo Udal honi zigortzeko ahalmena ematen dion gai bereko beste arauak urratzen direnean.

35. art. Ikuskapen eskaerak.

1. Ikuskapen eskaerek, prozedura administratiboari buruzko legediak eskaerak aurkezteko finkatzen dituen datuak jasoko dituzte eta, horretaz gainera, ikuskapen bisita egiteko beharrezkoak diren gainontzekoak, hala nola, lokalaren edo gogaitak sortzen dituen instalazioaren identifikazioa, erasandako etxebizitzak edo lokalak eta harremanetarako telefonoa, egiaztapenaren data zehazteko.

2. Bere etxebizitza erasanik arau-hauspenak salatzen dituztenek, udaleko pertsonalari euren etxebizitzan sartzeko baimena emango diote, aldez aurretik igorritako jakinarazpen

En la ordenanza, podemos leer lo siguiente:

Art. 27. Facultades administrativas. Competencia inspectora y de control.

1. Corresponde al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián controlar el cumplimiento de la presente Ordenanza y, dentro de su competencia, de la demás normativa relativa a actividades, especialmente, a las clasificadas; exigir, de oficio o a instancia de parte, en el mismo marco, la adopción de las medidas preventivas, correctoras o reparadoras necesarias para la protección del vecindario; ordenar cuantas inspecciones estime convenientes y exigir las justificaciones que considere oportunas para acreditar el buen funcionamiento de las actividades; dictar las órdenes precisas para obtener la restitución de la legalidad conculcada; y ejercer la potestad sancionadora en caso de incumplimiento de la presente norma o de aquéllas otras de la misma materia que atribuyan la competencia para sancionar a este Ayuntamiento.

Art. 35. Solicitudes de inspección.

1. Las solicitudes de inspección deberán contener los datos que la legislación acerca del procedimiento administrativo establece para la presentación de instancias y, además, los datos necesarios para la realización de la visita de inspección, tales como la identificación del local o instalación causante de las molestias, viviendas o locales que resulten afectados y teléfono de contacto para poder concretar la fecha de la comprobación.

2. Las personas denunciantes de infracciones que afecten a su vivienda deberán permitir el acceso del personal municipal cuando sean requeridos de forma oficial mediante

baten bidez era ofizialean horrela eskatzen zaienean.

Salatariek salatutako instalazioetan egiaztapenak egiteko xedez, etxebizitzan sartzeko baimenik emango ez balute, Udal Zerbitzu Teknikoek, traba hori traba, instalazio horren egoera diagnostikatzeko egoki irizten dituzten egiaztapenak egingo dituzte; nola nahi ere, egoera honek eta egiaztapen honek, eta pertsonentzako, gauzentzako edo oro har ingururako arriskurik dagoen kasuan ezik, ez du jardueraren titularrarentzako zama handiagorik, salatariak bere lankidetza eman izanez gero legokiokeena baino handiagorik ekarriko. Ondoren dagokion txostena egingo dute teknikariek.

3. Salaketa inolako arrazoirik gabe egin dela nabari bada, Udalak salatariari ikuskapenak sortzen dituen gastuak ordaintzea exigi diezaioke.

Hau da, ordenantzan jasotzen den bezala, Udalak ikusten badu zonalde batean arazoak egon daitezkeela ofizioz hasi dezake ikuskapena. Talde honen ustez, bizilagunek aurkeztutako sei kexak irakurrita, argi dago arazoren bat egon badagoela.

Ziurtatu beharko litzateke, bestetik, bizilagunak kexak aurkeztera etortzen direnan prozedura errazteko salaketa jartzea komeni dela ohartaraztea; izan ere, administrazioak prozedurak azaldu eta erraztu behar dizkie herritarrei.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau

notificación previa.

En caso de que las personas denunciantes denegasen el acceso a su vivienda para efectuar las comprobaciones de las instalaciones denunciadas, los Servicios Técnicos Municipales realizarán las comprobaciones que, al margen de esta limitación, consideren adecuadas para diagnosticar el estado de la instalación en cuestión y emitirán informe al respecto, sin que, salvo que se considere que exista situación de peligro para las personas, cosas o para el ambiente en general, esta comprobación pueda llegar a suponer para la persona titular de la actividad un gravamen superior al que se le hubiera ocasionado en el caso de que la persona denunciante hubiera prestado su colaboración.

3. De resultar notoriamente injustificada la denuncia, el Ayuntamiento podrá exigir a la persona denunciante los gastos que origine la actuación inspectora.

Es decir, tal como aparece recogido en la Ordenanza, si el Ayuntamiento detecta la posibilidad de problemas en una zona, puede comenzar de oficio la actividad inspectora. Este grupo considera que, del contenido de las seis quejas presentadas por el vecindario, se desprende claramente la existencia de un problema.

Por otro lado, habría que garantizar que, cuando las vecinas y vecinos acuden a presentar una queja se les advierta de que, para facilitar el procedimiento, conviene que hagan una denuncia, puesto que la administración debe explicar y facilitar los procedimientos a la ciudadanía.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación anteriormente expuesta, la concejala abajo

aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari herritarrek aurkeztutako kexa eta proposamenak arduraz landu ditzala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Bartzelona Etorbideko 24. zenbakiko bizilagunei erantzun bat eman diezaiela.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari soinu eta zarataren kutsadura dela-eta Udalak izan beharreko jarrera arautzen duen ordenantzan jasotzen diren ofiziozko neurriak erabil ditzala, zonalde bati lotutako kexak jasotzen dituenean.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que se ocupe con diligencia de las quejas y propuestas presentadas por la ciudadanía.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que dé una respuesta al vecindario del nº 24 de la avenida de Barcelona.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, cuando reciba quejas respecto a una zona, adopte las medidas de oficio que prevé la Ordenanza que regula la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones.

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**16. Kontrol Mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, amiantoaren mapa egiteari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten diot, azterkizun, Udalbatzari, amianto mapa egitea dela eta. 2018ko apirilaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da Mozioa joan den.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko osoko bilkuran, aho batez onartu zen ASMIAVIEk eta EH Bildu udal taldeak eskatutako kontrol mozio bat, eta honela zioen haren lehen puntuak: 1- “Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio amiantoa duten gure hiriko eraikin edo etxeen errolda edo mapa bat egiteko”.

Ordutik, askotan galdetu diogu udal gobernuari zenbateraino bete duen aho batez onartutako mozio bat, oro har guztien osasunari eta bereziki langileenari eragiten diona edo eragin diezaiokeena.

Nahiz eta onartzen dugun gai zaila dela, adostu zen lehenestea udalaren jabari eta instalazioei eta haren sozietate edo EEPei buruzko mapa hori egitea.

**16. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la elaboración del mapa de amianto.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre la elaboración del mapa de amianto. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 16 de abril de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El Pleno de abril de 2016 aprobó por unanimidad, a instancia de ASMIAVIE y del grupo municipal EH BILDU, una moción de control cuyo punto primero decía: 1- “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a elaborar un censo o mapa de edificios o inmuebles que contengan amianto en nuestra ciudad”.

Desde entonces, han sido varias las ocasiones en las que hemos preguntado al Gobierno Municipal su grado de cumplimiento sobre una moción, aprobada por unanimidad, que afecta, o que puede afectar, a la salud de las personas en general y, del personal laboral que en sus quehaceres profesionales se encuentren con él, en particular.

Admitiendo que se trata de una cuestión compleja, se acordó priorizar la realización del referido mapa sobre instalaciones y propiedades municipales y de sus sociedades o EPEs.

Ingurumeneko zinegotzi ordezkariari hartaz galdetuta adierazi zigunez, esleituta zegoen amiantodun lursail edo eraikinen udal mapa egiteko lana idaztekoa, eta egiten ari omen dira, nahiz eta, onartu zuenez, ezin zuen begiz jo noizko amaituko duten.

Interpelada al respecto la delegada de Medio Ambiente, nos informó de que el encargo para la redacción del referido trabajo de elaboración de un mapa municipal de parcelas o edificios con amianto estaba ya adjudicado y en proceso de elaboración, aunque reconoció el desconocimiento de la fecha de estimación de la finalización del mismo.

Bestalde, mozio horretako 3. puntuak honela zioen: “Era berean, Gobernu taldeari eskatzen zaio martxan jartzeko eta planifikatzeko udalaren eraikin edo lursailetan dagoen amiantoa desagerrarazi eta kentzeko programa bat, lehentasuna emanda okerren dauden horiei edo erabilgarritasuna bukatu zaiela erakutsi dutenei”.

Por otra parte, el punto 3 de dicha moción decía así: “Se insta asimismo al equipo de gobierno a poner en marcha, y planificar, un programa de erradicación y retirada del amianto presente en edificaciones o parcelas municipales; priorizando aquel que se encuentre en peor estado o que haya dado muestras de la finalización de la vida útil del mismo”.

Puntu horretan, ordezkari andrearen erantzuna ez zitzaigun iruditu hain asebetegarria, esku hartzen ari diren elementuak besterik aipatu ez zuelako. Halere, beharrezkoa izan daiteke horiek kentzea, kontserbazio egoeragatik edo horien erabilera epea amaitu izanagatik.

En este punto, la respuesta de la delegada nos pareció menos satisfactoria ya que se refirió únicamente a aquellos elementos sobre los que está interviniendo. Sin embargo, también puede ser necesaria la eliminación de los mismos como consecuencia de que no se encuentren en el debido estado de conservación o haya finalizado la vida útil de los mismos.

Era berean, aho batez onartutako kontrol mozio horren 4. puntuak honako agindu politiko hau ezarri zion udal gobernuari: “Gobernu taldeari eskatzen zaio martxan jar ditzala amiantoa kentzearen komenigarritasunari eta jarraibideei buruzko sentsibilizazio programak herritarrentzat”.

Asimismo, el punto 4 de dicha moción de control, aprobada por unanimidad, establecía el mandato político siguiente al Gobierno Municipal: “Se insta al equipo de gobierno a estudiar la puesta en marcha de programas de sensibilización en la población sobre la conveniencia de eliminación del amianto y de las pautas a seguir”.

Horri buruz, ordezkariak erantzun zigun Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri eta uste zutela eskumena Jaurlaritzarena zela. Horrek ez du galarazten berriz, beste gai batzuetan gertatu bezala, Donostiako Udalak herritarren artean sentsibilizazio kanpaina orokorrak egitea, amiantoak eta hura txarto

Al respecto, la delegada nos contestó que, puestos en contacto con el Gobierno Vasco, consideraban que la citada cuestión era competencia del mismo. Ello no impide, al igual que sucede en otras materias, que el Ayuntamiento no pueda realizar campañas de sensibilización a la población en general sobre

manipulatzeak izan ditzakeen arriskuez.

Hori guztia ikusita, agiri hau sinatzen duen zinegotziak KONTROL MOZIO hau egiten du:

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari, 2016ko apirileko osoko bilkuran aho batez onarturiko akordioa betetzeko, programa bat aurkeztea, egoera txarrean ala erabilera epea iraungita egonez gero, amiantoa udal eraikin eta lursailetatik kentzeko.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari, 2016ko apirileko osoko bilkuran aho batez onarturiko akordioa betetzeko, herritarren artean sentsibilizazio programa bat abiaraztea, amiantoa kentzea komeni dela adierazi eta hartarako jarraibideak emateko.

Donostian, 2018ko maiatzaren 20an

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

los potenciales riesgos del amianto y de una manipulación inadecuada del mismo.

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en cumplimiento del acuerdo adoptado por unanimidad en la sesión plenaria de abril de 2016, presente, previa constatación de su deficiente estado o fin de la vida útil del mismo, un programa para retirar el amianto presente en edificios o parcelas municipales.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que, en cumplimiento del acuerdo adoptado por unanimidad en el Pleno de abril de 2016, ponga en marcha un programa de sensibilización, en la población en general, sobre la conveniencia de eliminación o retirada del amianto, así como de las pautas a seguir.

Donostia, a 20 de abril de 2018

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré.
Concejal del Grupo Municipal de EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**17. Kontrol Mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, interpelazioak batzorde egunean erantzutearen ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko apirilaren 16an Zerbitzu Orokorren Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabeteetan Udalbatzaren batzordeetan hainbat gorabehera ematen ari dira: delegatuak berandu iristen dira, ordutegiak gaizki kalkulatzen dira, ekimen batzuk erantzunik gabe gelditzen dira Udal Gobernua osatzen duten bi alderdien arteko gaizki ulertuengatik eta abar.

Honek guztiak oposizioa osatzen dugun taldeen lana oztopatzen du eta oposizioaren ekimenek duten erantzun eskubidea urratzen du.

Adibidez, otsaileko batzordeetan hiriko gune estalien batzordearen inguruan egindako interpelazioa erantzuteko, Udal Gobernuak lau egun behar izan zituen. Hau da: asteleheneko batzordean erantzuna idatziz bidaliko zuela adierazi zuen delegatuak, baina ostegunera arte ez zen erantzunik bidali. Kontuan izanda kontrol mozioak aurkezteko epea mugatua dela

**17. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la falta de repuesta a las interpelaciones en el día de las comisiones de pleno.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales del 16 de abril de 2018.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos meses, se están produciendo varias incidencias en las comisiones de Pleno: los delegados y delegadas llegan tarde, los horarios no se calculan adecuadamente, algunas iniciativas no son contestadas por los malentendidos que se producen entre los dos grupos que componen el Gobierno Municipal, etc.

Todo ello obstaculiza la labor de los grupos que conformamos la oposición y vulnera nuestro derecho a recibir una respuesta a las iniciativas que presentamos.

Por ejemplo, el Gobierno Municipal necesitó cuatro días para contestar a una interpelación, relativa a la comisión de espacios cubiertos de la ciudad, presentada en las comisiones de febrero. Es decir: en la comisión del lunes el delegado se comprometió a remitir la respuesta por escrito, pero no lo hizo hasta el jueves. Teniendo en cuenta que el plazo para

(astelehenetik ostiralera), ez dugu uste egokia denik lau egun itxaron behar izatea erantzuna jasotzeko.

Hori dela eta, apirileko batzordeetan interpelazioa aurkeztu genuen eta delegatuak erantzun zuen Udal Gobernuaren ustez batzordeak ondo gestionatzen direla eta ekimen guztiak egunean bertan erantzuten direla. Gainera, garrantzia kendu zion interpelazioak batzorde egunean ez erantzuteari eta aipatu zuen berandu erantzuten badira oposizioan gauden taldeok aukera dugula ondorengo hilabeteeko plenoetan kontrol mozioa aurkezteko -hau da, hilabete bat beranduago, gutxienez-.

Udalbatzaren Organo Araudiak dioenez, ordea, ekimenak batzordeetan erantzun behar dira. Hau da, apirilaren 16ko batzordean emandako azalpenaren arabera, Udal Gobernuak zilegitzat eta normaltzat jo zuen Udalbatzaren Organo Araudia ez betetzea. Oso larria da.

Baina areago, honek guztiak udal taldeen eta herritarren eskubideetara eragiten die. Alde batetik, ezin direlako udal taldeen ekimenak oztopatu eta, bestetik, hiritar zein eragileek aurkezten dituzten eskaerak errespetatu behar direlako. Izan ere, donostiarrek edo eragileek udal taldeen bidez aurkezten dituzte haien kezkak eta proposamenak eta askotan proposamen horiek epe batzuen logikan egiten dira.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau

la presentación de mociones de control es limitado (de lunes a viernes), consideramos que no es procedente tener que esperar cuatro días para recibir una respuesta.

Por todo ello, en las comisiones de abril presentamos una interpelación, a la que el delegado contestó diciendo que, en opinión del Gobierno Municipal, las comisiones se gestionan de manera adecuada y todas las iniciativas se contestan en el mismo día. Además, el delegado restó importancia a la falta de respuesta a las interpelaciones en el día de las comisiones y señaló que, en el caso de que se conteste tarde, los grupos de la oposición tenemos la opción de presentar una moción de control en los plenos de los próximos meses, es decir, como mínimo un mes más tarde.

Sin embargo, el Reglamento Orgánico del Pleno establece que las iniciativas deben contestarse en las comisiones. Es decir, según la explicación que se nos proporcionó en la comisión del 16 de abril, el Gobierno Municipal considera legítimo y normal que se incumpla el Reglamento Orgánico del Pleno. Esto es muy grave.

Pero es que, además, todo ello vulnera los derechos de los grupos municipales y de la ciudadanía, ya que, por un lado, no se pueden poner obstáculos a las iniciativas de los grupos municipales, y, por otro lado, se deben respetar las solicitudes presentadas por la ciudadanía y por los agentes locales. Y es que tanto la ciudadanía donostiarra como los agentes de la ciudad presentan sus inquietudes y sus propuestas a través de los grupos municipales, y, en muchas ocasiones, dichas propuestas se plantean dentro de la lógica de unos determinados plazos.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta

aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal taldeek udal batzordeetan aurkezten dituzten interpelazioak batzorde egunean bertan erantzun ditzala.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que responda a las interpelaciones que los grupos municipales presentamos en las comisiones en el mismo día en el que éstas se celebran.

San Sebastián, 20 de abril de 2018

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**18. Kontrol Mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, Lourdes Txikiko mendi hegalean zuhaitzak landatzeari buruzkoa.**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Mozioa hilabete honetako Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean Lourdes Txiki lehenera ekartzeko neurriei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

**18. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre repoblación de la ladera de Lourdes Txiki.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio del presente mes relativa a las medidas de restauración en Lourdes Txiki.

JUSTIFICACIÓN

2017ko apirilean, Ekintza ikastolaren alboan, 50 metroko eremuan, zuhaitzak kentzeko agindua eman zen, eta zuhaitz asko moztu ziren, "Udalak baimenean finkatu baino eremu handiagoan". Alfonso Gurpegui orduko Ekologiako zinegotzi ordezkariaren hitzak dira horiek, apirilaren 25ean mozketa horiek badaezpada geratzeko eskatzeko egindako idazki batean esanak.

En abril 2017, a raíz de una orden de ejecución de retirada de árboles en una franja de 50 m colindante con la ikastola Ekintza, se realizó una tala importante de árboles "en un área superior a lo establecido en la autorización del Ayuntamiento" (palabras del entonces Concejal Delegado de Ecología Alfonso Gurpegui en un escrito del 25 de abril instando la paralización cautelar de dicha tala).

Mozketek ondorio handiak izan zituzten, 2 ha baino gehiagoko babestutako natura-eremu batean egin zirelako. Baso misto hostotsu bat zegoen han, tamaina handiko zuhaitzekin.

Esa tala tuvo una repercusión importante por haber sido realizada en un espacio natural protegido de más de 2 ha que ocupaba un frondoso bosque mixto, con árboles de gran porte.

Ondoren, Udalak hegala egonkortzeko eta ingurumen aldetik lehenera ekartzeko proiektu bat idazteko agindu zion Ikerlur enpresari. Zoritxarrez, zenbait faktorek adierazten dute Ikerlurren zuhaitzak landatzeko proposamena ez dela egokia eta ondo berrikusi behar dela:

Posteriormente, el Ayuntamiento encargó a la empresa Ikerlur la redacción de un proyecto de estabilización y restauración ambiental de la ladera. Desgraciadamente, varios aspectos indican que la propuesta de repoblación de Ikerlur no es adecuada y necesita una revisión importante:

1. Bioaniztasunaren eta Ingurumen Kalitatearen buruak idatzitako txostenak, 2017ko maiatzaren 24koak, honela zioen: "lursailean etorkizunean edozein ekintza gauzatzeko, bai lehenera ekartzeko bai egungo egoera dela eta mendi-hegala egonkortzeko, nahitaezkoa izango da Zuzendaritza honen txostena".

1. El informe, de 24 de mayo 2017, de la Jefa de Biodiversidad y Calidad Ambiental propone "someter cualquier futura actuación en la parcela, tanto de restauración como de estabilización de la ladera debido al estado actual, a informe ambiental de esta Dirección".

Alabaina, lehenera ekartzeko proposamenik ez zaio egin Bioaniztasunaren eta Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzari.

Sin embargo, no se ha sometido la propuesta de restauración a la Dirección de Biodiversidad y Calidad Ambiental.

2. Txosten horretan bertan, egileak gomendio hau ere ematen du: "eremua bere lehenera ekartzera derrigortzea, eta eremua lehenera ekartzeko ardura hartzen duen pertsonari edo entitateari eragindako kaltearen proportzio bereko urte-epea ezartzea horretarako, eta,

2. En ese mismo informe, su autora recomienda también "obligar a la restauración de la zona imponiendo a la entidad o persona responsable de la misma un plazo de años proporcionado al daño causado en el que deberá encargarse de asegurar que la

horrez gain, epe horretan leheneratze-prozesua modu egokian gauzatzen ari dela ziurta dezala".

restauración sigue un curso adecuado”.

Alabaina, ez dago halako neurri edo proposamenik.

Sin embargo, no existe ninguna medida o propuesta en este sentido.

3. Landatzeko proposatutako espezieen zerrendan, ez da ageri 2017ko uztailaren 28ko Aldundiaren txostenean adierazitako moztutako espezie bakar ere (“23 haritz, 13 sasiakazia, 12 ereinotz eta 4 gaztainondo”).

3. En la lista de especies que se propone plantar no figura ninguna de las especies taladas mencionadas en el informe de la Diputación del 28 de julio 2017 (“23 robles, 13 pseudo-acacias, 12 laureles y 4 castaños”).

4. 2018ko otsailaren 20an, Mendiak eta Habitatak kudeatzeko zerbitzuburuaren dokumentu bat sartu zen erregistroan. Proposatutako leheneratze-proiektuak zenbait “hutsune" zituela zioen:

4. El 20 de febrero 2018 entró por registro en el Ayuntamiento un documento del Jefe de Servicio de Montes y Gestión de Hábitats de la Diputación que señala varias “deficiencias” del proyecto de restauración propuesto:

◦ Zuhaitzak zer baldintzatan landatu behar diren esaten zuen oroitidazki bat falta zela.

◦ Falta de una memoria que recoja las condiciones en las que deba realizarse la repoblación.

◦ Akats ugari zeudela erabili beharreko espezieen izendapenean.

◦ Numerosos errores a la hora de designar las especies a utilizar.

◦ Moztu ziren espezieak ez direla ageri berriz landatu beharrekoen artean.

◦ No se recoge la repoblación con aquellas especies que fueron objeto de tala.

◦ Espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoan (http://www.mapama.gob.es/es/biodiversidad/temas/conservacion-de-especies/buddlejadavidiifranchet_tcm30-439567.pdf) eta Euskal Autonomia Erkidegoko flora aloktono inbaditzaileen diagnosian https://is.gd/cY7KSW ageri den espezie bat landatzeko asmoa ageri dela.

◦ Uso previsto de una especie invasora que figura en el “Catálogo español de especies exóticas invasoras” (http://www.mapama.gob.es/es/biodiversidad/temas/conservacion-de-especies/buddlejadavidiifranchet_tcm30-439567.pdf), en el “Diagnosis de la flora alóctona invasora de la CAPV” (https://is.gd/cY7KSW).

5. Mendi-hegala leheneratzeko aurreikusitako espezieen zerrendan, “BUDDLEIA C4” ageri da. Buddleja, baina, genero bat da, eta ez dakigu genero horretako zein espezie den zehatz-mehatz landatu nahi dena. Kezkatzen gaituena da Buddleja Davidii espeziea izan

5. En la lista de especies previstas para la restauración de la ladera, figura el “BUDDLEIA C4”. El Buddleja es un género y dentro de ese género no sabemos de qué especie se trata exactamente. Lo que preocupa es que se pueda tratar de la especie Buddleja Davidii.

daitekeela. Izan ere, espezie hori espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoan ageri da (www.mi-url.com/mapama), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko flora aloktono inbaditzaileen diagnosian ere (https://is.gd/cY7KSW), eta Uraren Euskal Agentzia espezie hori (besteak beste) desagerrarazteko ahalegina egiten ari da (https://is.gd/tVQxTj).

Esa especie figura en el "Catálogo español de especies exóticas invasoras" (www.mi-url.com/mapama), en el "Diagnosis de la flora alóctona invasora de la CAPV" (https://is.gd/cY7KSW), y además, caber reseñar que la Agencia Vasca del Agua está trabajando en la eliminación de esa especie (entre otras) (https://is.gd/tVQxTj).

Batzordean, Gobernuak esan zuen egonkortze- eta leheneratze-proposamenari doikuntza bat egin zaiola. Baina doikuntza hori ohar-tekniko bat da, sarearen ordez hesi dinamiko bat jartzea aztertzen du, eta ez du inolako aldaketarik egiten zuhaitzak landatzeari buruzko zatian.

En Comisión, el Gobierno comentó que se ha realizado un ajuste a la propuesta de estabilización y restauración. Pero ese reajuste es una nota técnica que analiza la sustitución de malla por barrera dinámica, y no aporta modificación alguna en la parte que trata de la repoblación.

Badakigu biderkatu egin direla egonkortzeari lotuta ebazpen teknikoa eskatzen duten arazoak eta arazo administratiboak, esku-hartzeak lursailen bi titularrekin bideratu behar direlako eta gauzatzeko aginduak beste bati eman behar zaizkiolako.

Entendemos que se hayan multiplicado los problemas de resolución técnica de la estabilización y los problemas administrativos, inherentes al hecho de que las intervenciones deban repartirse entre dos titulares de las parcelas, y a que se trata de una orden de ejecución que un tercero o terceros deben ejecutar.

Baina behin hegala egonkortzeari dagokion lehen fasea amaitutakoan, bigarren fasea hasiko da: hegala ingurumen aldetik lehenera ekartzeko fasea. Eta gaur gaurkoz, berriz landareztatzeko dagoen proposamen bakarrak, lehenetsi denak, gure taldearentzat, ingurumen-elkarteentzat, Udaleko Ingurumen Sailarentzat eta Diputazioarentzat aski ez diren neurriak edo egokiak ez diren neurriak proposatzen ditu.

Pero una vez finalizada la primera fase que consiste en estabilizar la ladera, arrancará la segunda fase que consiste en restaurar medioambientalmente la ladera. Y a día de hoy, la única propuesta de revegetación existente y por defecto propone cosas que nuestro grupo, asociaciones medioambientalistas, el Departamento de Medioambiente del Ayuntamiento y la propia Diputación consideran insuficientes o inadecuadas.

Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaigu beharrezko kudeaketak egitea landareztatze-proposamena berriz idazteko. Helburua da, hegala lehenera ekarri behar denean, behar bezala egingo dela bermatuko duen dokumentu bat izatea.

Por este motivo nos parece importante hacer las gestiones necesarias para que se vuelva a redactar la propuesta de repoblación, con el fin de disponer de un documento que garantice la correcta restauración de la ladera cuando esta se realice.

Hori guztia dela eta, hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Lourdes Txikiko hegala, Ekintza Ikastolaren aldamenean zuhaitzak moztu diren gunea, berriz landareztatzeko beste proposamen bat idazteko eskatzen dio Udal Gobernuari. Helburua da erreferentziazko dokumentu bat izatea, lursaila ingurumen ikuspegitik behar bezala lehengoratuko dela bermatuko duena.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio Lourdes Txikin zuhaitzak moztu diren gunea lehenera ekartzeko beste proposamen bat baloratzeko eskatzeko Udaleko Ingurumen Sailari.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio Lourdes Txikin zuhaitzak moztu diren gunea lehenera ekartzeko beste proposamen bat baloratzeko eskatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuari.

Donostia, 2018ko apirilaren 20an

Sin.: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a redactar una propuesta alternativa de revegetación de la ladera de Lourdes Txiki, colindante con la ikastola Ekintza y donde se han realizado talas de árboles, con el fin de disponer de un documento de referencia que asegure una correcta restauración medioambiental del terreno.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a someter a valoración del Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento, una propuesta alternativa de restauración de la ladera de Lourdes Txiki donde se han realizado talas de árboles.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a someter a valoración del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats de la Diputación Foral de Gipuzkoa, una propuesta alternativa de restauración de la ladera de Lourdes Txiki donde se han realizado talas de árboles.

Donostia, a 20 de abril de 2018

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Ernique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (6) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**19. Kontrol Mozioa, IRABAZI Taldeak aurkeztua, udalaren web orrian albisteak argitaratzeari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, UDALBATZAN azter dadin. Mozioa hilabete honetako Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean azaldu genuen moduan, martxoaren 20ko Bozeramaileen Batzordeak pentsioei buruzko erakunde adierazpen bat onartu zuen, eta osorik argitaratu zen Udalaren web orrian. Batzorde horretan bertan, beste zenbait erakunde adierazpen ere eztabaidatu eta onartu ziren, baina haiek ez ziren argitaratu, ez zuten halako zorterik izan. Hain zuzen, ez da ohikoa Bozeramaileen Batzordeak onartutako erakunde adierazpenak argitaratzea, eta Udalbatzak onartutako beste ekimen batzuk argitaratzea ere ez.

**19. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI, sobre publicación de noticias en la web municipal.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, consecuencia de interpelación en Comisión de Servicios a las Personas de este mes, en relación a la publicación de noticias en la web municipal.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como manifestamos en la Comisión de Servicios a las Personas, la Junta de Portavoces del día 20 de marzo aprobó una declaración institucional sobre las pensiones que fue publicada íntegramente en la web municipal. En esa misma sesión de la Junta, se debatieron varias declaraciones institucionales que también fueron aprobadas, pero que no corrieron la misma suerte. De hecho, no es frecuente que se publiquen las declaraciones institucionales que son aprobadas por la Junta de Portavoces, ni tampoco otras iniciativas aprobadas por el Pleno.

Iruditzen zaigu udalaren web orriak hiritarrei gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko balio behar duela, eta Bozeramaileen Batzordeak eta Udalbatzak onartutako kontuen berri emateko ere bai. Izan ere, web orri horren titularrak ez dira ez Gobernua ez udala osatzen duten taldeak: udala osatzen duten guztiena da.

Beraz, iruditzen zaigu Udal Gobernuak beharrezko kudeaketak egin behar dituela udalaren web orriak onartzen diren gauzei buruzko informazioa eman dezan, alde batera utzita gai zehatz batek une jakin batean eragin dezakeen aukera politikoa.

Hori dela eta, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio bai Bozeramaileen Batzordeak bai Udalbatzak onartutako ekimenak argitara ditzala udalaren web orrian.

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Consideramos que la web municipal debe servir para informar a la ciudadanía tanto de la gestión del gobierno, como de lo que se acuerda por la Junta de Portavoces o por el Pleno, dado que esa web no es titularidad ni del gobierno, ni de los partidos que lo conforman, sino del conjunto del Ayuntamiento.

Por lo tanto, creemos que el gobierno municipal debe hacer las gestiones oportunas para que la web municipal informe de lo que se acuerda, más allá de la oportunidad política que un tema concreto pueda generar en un momento determinado.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a publicar en la web municipal las inicitivas aprobadas tanto por la Junta de Portavoces como por el Pleno.

Donostia, 20 de abril de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavos del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**20. Kontrol Mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, 2018ko ekonomia sustatzeko plana dela-eta.**

"Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, 2018ko Ekonomia Sustatzeko Plana dela-eta KONTROL MOZIOA aurkezten du, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonentzako Batzordean 2018ko martxoaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko martxoan gaude eta Donostiako Sustapenak ez du aurtengo plangintza oraindik ere onartu. Are gehiago, taldeen arteko bilerarik ez du deitu. Beraz, lanketa hasi gabe, noiz onartuko den ezin dugu jakin. Gauzak horrela, gure taldeak bi ildo indartu behar direla defendatu nahi du. Alde batetik, emakumeen aldeko apustu irmoa, datuen arabera 45 urtetik eta 55 urtetik gora lana aurkitzeko arazo handiak baitituzte. Bestetik, merkataritza eta auzoetako plangintzak (Amara Berri eta Egia) gauzatzea eta sektore osoari laguntza eskaintzea; hau da, Udalak bertako merkataritzan benetan sinets dezala.

Apirilaren 19an, Sustapenean, udal taldeen arteko bilera gauzatu zen. Besteak beste, bi ildo hauek jarri genituen mahai gainean eta Udal Gobernuak gai hauekin neurri batzuk hartu zituela eta irekita zegoela adierazi zigun.

**20. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa al plan de estímulo económico del 2018.**

"Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, relativa al Plan de Estímulo Económico de 2018, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 12 de marzo de 2018.

JUSTIFICACIÓN

A pesar de que nos encontramos ya en el mes de marzo, Fomento de San Sebastián no ha elaborado aún la planificación correspondiente a este año. Ni siquiera ha convocado a los grupos a ninguna reunión. Por tanto, es imposible saber cuando será aprobada dicha planificación. Así las cosas, nuestro grupo quiere defender que hay dos sectores que deben ser reforzados. Por un lado, se debe hacer una apuesta firme por las mujeres, ya que, según los datos existentes, éstas tienen grandes dificultades para encontrar trabajo a partir de los 45 y de los 55 años. Por otro lado, se debe conceder mayor importancia al comercio, creando diversos planes para los barrios (Amara Berri y Egia) y ayudando al sector en su conjunto. Dicho de otro modo, el Ayuntamiento debe creer realmente en el comercio local.

El 19 de abril, se llevó a cabo una reunión entre los grupos municipales, en Fomento. Entre otros, pusimos sobre la mesa estos dos ejes, y el Gobierno municipal nos manifestó que había adoptado algunas medidas al

Zehaztapen handirik ez du eman, ordea.

respecto de esos asuntos y que estaba abierto. Sin embargo no ofreció grandes detalles.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Sustapenak emandako diru-laguntzetan (kontratazioa, enpresak sortzea...) 45 urtetik eta 55 urtetik gorako emakumeekin lanketa berezi bat egin dezala, diru laguntza handiagoez, lana aurkitzea errazteko.

1. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que realice un esfuerzo especial en las subvenciones que otorga Fomento (contratación, creación de empresas…) con las mujeres de más de 45 años y de más de 55 años, con mayores ayudas, para facilitar que encuentren empleo.

2- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Sustapenaren eskutik, auzoetako merkataritza plangintzak abian jar ditzala eta horretarako gobernu ordezkarien artean (Mugikortasuna, Gune Publikoak, Hirigintza eta Obrak, Partaidetza...) elkarlana sustatu dezala.

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, de la mano de Fomento, ponga en marcha planes de comercio en los barrios y a que, para ello, fomente la colaboración entre las delegaciones del Gobierno municipal (Movilidad, Espacios Públicos, Obras y Urbanismo, Participación...).

Donostian, 2018ko apirilaren 20an

En San Sebastián, a 20 de abril de 2018

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

II.3

BESTE KONTROL MOZIO BATZUK

**II.3.1. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, etxez etxeko laguntza zerbitzua (EELZ) dela eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN Batzordean Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua dela-eta bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3.11. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3.11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**3.11. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3.11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.3.12. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Arte Ederren antzokia dela-eta Udal Gobernuko kideek egindako adierazpenari buruzkoa.**

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, Arte Ederren Antzokia dela-eta Udal Gobernuko kideek egindako adierazpenei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

SADEk Donostiako Arte Ederretako Antzokia dela-eta Donostiako Udalari 13.700.000 euroko kalte ordaina eskatzeko egindako erreklamazio funts gabea gaitzetsi egin zuen Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegiak, eta apirilaren 25ean, horren berri jakin ondoren, Udal Gobernuko zenbait kidek epai horri buruzko balorazioa egin zuten.

Jasota gera dadin, azaldu nahi dugu pozez hartu dugula epai hori, Udalari ematen baitio arrazoia eta baztertu egiten baitu inolako "lotura berezirik" dagoenik. Izan ere, praktikan hori oso kaltegarria litzateke udal interesetarako; ez bakarrik horrek ekarriko lituzkeen balizko ondorio ekonomikoengatik, baizik eta Donostiaren hirigintza ordenamendua mugatuko lukeelako ere bai.

Lehen alkateordeak egindako balorazioa komatxo artean jasota argitaratu zen prentsan: dijo Gasco, que aseguró que el grupo socialista "estuvo en la línea correcta" el pasado año, "negándose a un pacto extrajudicial con la empresa, que hubiese supuesto perjuicios económicos a las arcas

**II.3.12. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre declaraciones de miembros del gobierno sobre el teatro Bellas Artes**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre declaraciones de miembros del Gobierno Municipal en relación al Teatro Bellas Artes.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 25 de abril del presente, tras conocerse el fallo de la sentencia del Juzgado Contencioso Administrativo n.º 1 de Donostia que desestima la infundada reclamación de la SADE por la que reclamaba al Ayuntamiento el pago de una indemnización de 13.700.000 euros, distintos miembros del Gobierno Municipal realizaron una valoración del referido fallo judicial.

Queremos dejar constancia de que nos sumamos a la satisfacción por un fallo que da la razón al Ayuntamiento y que rechaza cualquier supuesta consideración de "vinculación singular". Lo que en la práctica sería seriamente perjudicial para los intereses municipales; no sólo en cuanto a las hipotéticas consecuencias económicas de ello, sino también en cuanto a elementos condicionantes, que incidirían sobre las facultades de ordenación urbanística de la propia ciudad.

En la valoración realizada por el primer teniente de alcalde se recoge en la prensa entrecomillado: dijo Gasco, que aseguró que el grupo socialista "estuvo en la línea correcta" el pasado año, "negándose a un pacto extrajudicial con la empresa, que hubiese supuesto perjuicios económicos a las arcas

municipales, al reconocer vía pacto que la reclamación podría tener razón".

Eta horren ondoren, honela zioen albisteak: El portavoz socialista añadió que "las posiciones fueron diferentes entre los socios del gobierno". Komatxo artean agertutako adierazpen horiek gerora ez dira zuzendu.

Hau da, Udal Gobernuko zati batek egindako proposamena dela-eta, lehen alkateordeak berak uste du kalte ekonomikoak ekarriko zizkiola udal kutxari ("hubiese supuesto perjuicios económicos a las arcas municipales"). Adierazpen hori oso larria da, are gehiago Udal Gobernuko kideek egina izanik.

Udal Gobernuari horri buruzko interpelazioa egin ondoren, hau erantzutera mugatu zen bigarren alkateordea: Udal Gobernuko erabakiak alderdien (EAJ eta PSE) artean hartzen eta aldezten direla, eta gainera, "bat eginda" aldezten direla.

Azalpen horiek ez datoz bat Udal Gobernuko kide garrantzitsuek egindako adierazpenekin, hau da, "bat eginda" jokatzen omen duten horien adierazpenekin. Eta kezkagarriak dira, ez dutelako argitzen ea kasu honetan benetan izan al zen Udal Gobernuan donostiarren interesak adostasunez defendatzeko jarrerarik.

Horiek horrela, zinegotzi sinatzaileak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio eman diezaiola behar besteko lehentasuna Udalaren interesari, beste edozein interesen gainetik, erakundearen izenean aurkezten dituen proiektu edo proposamenetan.

municipales, al reconocer vía pacto que la reclamación podría tener razón".

Añadiendo a continuación la noticia: El portavoz socialista añadió que "las posiciones fueron diferentes entre los socios del gobierno". Las citadas declaraciones, que aparecen entrecomilladas, no han sido corregidas.

Es decir, el propio primer teniente de alcalde considera que la propuesta que manejó parte del Gobierno Municipal, "hubiese supuesto perjuicios económicos a las arcas municipales". Dicha afirmación, procedente además de miembros del propio Gobierno Municipal, es sumamente grave.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, nos contestó el segundo teniente de alcalde, quien se limitó a decir que las decisiones del Gobierno Municipal se toman y se defienden conjuntamente entre los dos partidos (PNV y PSE), y que además se defienden como "una unidad".

Dichas explicaciones no son muy coherentes con las manifestaciones producidas por destacados miembros del Gobierno Municipal, que dice actuar como una "unidad". Y son preocupantes, porque no aclaran si realmente hubo, en el mencionado caso, una defensa consensuada dentro del Gobierno Municipal de los intereses de la ciudadanía donostiarra.

Por todo ello, el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a priorizar debidamente el interés municipal, por encima de cualquier otro, en las propuestas o proyectos que presente en nombre de la institución.

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

San Sebastián, a 18 de mayo de 2018

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.3.13. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, kontseiluetan eta batzordeetan kideen parte hartzea bermatzearen ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, kontseiluetan eta batzordeetan kideen parte hartzearen egoera dela eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko maiatzaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

**II.3.13. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la falta de garantías para la participación de los miembros en los consejos y en las comisiones.**

“Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, relativa a la falta de garantías para la participación de los miembros en los consejos y en las comisiones, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 14 de mayo de 2018.

JUSTIFIKAZIOA

Alkateak, apirilaren 24an, asteartean, bi deialdi luzatu zizkigun: 10:00etan Turismo Kontseilua eta 11:00etan Donostia Kiroleko Artezkaritza Kontseilua, biak udaletxeko Urgull aretoan. Lehenengoa luzatu zela-eta, bigarrenera (azkenean Ulia aretoan egin zen) azken puntura iritsi zen behean sinatzen duen zinegotzi hau (galde-eskeak). Bi deialdiak egiteko moduarekiko neure desadostasuna adierazi nuen bi kontseiluetan.

Hau gutxi balitz bezala, aste berean, apirilaren 27an, ostiralean, 09:30ean Kontuen Batzorde Bereziaren eta 11:00etan Anoetako Kiroldegiko Kontseiluaren deialdiak jaso nituen. Lehenengoa bukatu eta bigarrenera joan nintzenean kontseilua amaituta zegoen.

Alkateak kontseiluetan eta batzordeetan parte hartzeko zinegotzion eskubideak bermatu behar ditu, baina ez da hori gertatzen ari.

Batzordean Viles jaunak aitzakiaz betetako argudioak erabili zituen, inongo azalpenik eman gabe eta egoera hobetzeko inongo konpromisorik hartu gabe.

Honegatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozioa aurkezten du

MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak alkateari eskatzen dio batzordeen eta kontseiluen deialdiak modu egokian kudea ditzala, haietako kideek bi bilera batera izan ez ditzaten.

JUSTIFICACIÓN

El martes 24 abril, el alcalde nos remitió dos convocatorias: a las 10:00 se iba a celebrar el Consejo de Turismo, y a las 11:00 el Consejo Rector de Donostia Kirola, ambas en la sala Urgull. Debido a que la primera reunión se prolongó más de lo previsto, el concejal que suscribe llegó a la segunda, que finalmente se celebró en la sala Ulia, cuando estaban tratando el último punto (ruegos y preguntas). En ambos consejos manifesté mi desacuerdo con la forma en la que se emiten las convocatorias.

Por si esto fuera poco, esa misma semana, el viernes 27 de abril, recibí una convocatoria para la Comisión Especial de Cuentas, que iba a celebrarse a las 09:30 h, y otra para el Consejo de Anoeta Kiroldegia, prevista para las 11:00 h. Finalizada la primera reunión, acudí a la segunda, pero el Consejo ya había finalizado.

El alcalde debe garantizar el derecho que asiste a los concejales y las concejalas de participar en los consejos y en las comisiones, pero no lo está haciendo.

En la comisión, el Sr. Viles dio innumerables excusas, a modo de argumento, pero no dio ninguna explicación y no asumió ningún compromiso para mejorar esta situación.

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al alcalde que gestione de un modo adecuado las convocatorias de las comisiones y consejos, para evitar que los miembros tengan dos reuniones a la vez.

Donostian 2018ko maiatzaren 18an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 18 de mayo de 2018

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak, Amaia Martin Garin andreak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D. Jon Insausti Maisterrena, D.ª Amaia Martín Garín y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.3.14. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako elkarbizitzarako plana dela eta.**

"Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko martxoan Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko ekainean, Kultur Aniztasuneko zinegotzi ordezkariak Udalbatza osatzen

**II.3.14. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el Plan de Convivencia de San Sebastián.**

"Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas de marzo de 2018.

JUSTIFICACIÓN

En junio de 2016, la concejala delegada de Diversidad Cultural nos comunicó a los grupos

dugun taldeoi jakinarazi zigun, sei hilabeteko epean, Udaleko Kultur Aniztasun Bulegotik lantzen ari ziren Elkarbizitzarako Planaren zirriborroa aurkeztuko zuela eta ekarpenak egiteko aukera zabalduko zitzaigula.

que formamos el Pleno que, en el plazo de seis meses, presentaría el borrador del Plan de Convivencia que estaba elaborando el Negociado Municipal de Diversidad Cultural y que, entonces, tendríamos la oportunidad de presentar aportaciones.

2017ko ekaineko Pertsonen Zerbitzuen Batzordean, hiriko Kultur Aniztasun politiken kudeaketak bizi duen moteltasunaz kezkaturik, gaiaren inguruko interpelazioa aurkeztu genuen. Batzorde hartan, Elkarbizitzarako Plana nahi baino motelago lantzen ari zela adierazi zitzaigun.

En la Comisión de Servicios a las Personas de junio de 2017, nuestro grupo, preocupado por la lentitud que se ha instaurado en la gestión de las políticas de Diversidad Cultural de la ciudad, presentamos una interpelación sobre el tema. La respuesta que recibimos fue que el Plan de Convivencia se estaba elaborando con más lentitud de la deseada.

2018ko maiatzean gaude eta Donostiako Elkarbizitzarako Plana aurkeztuko zitzaigula adierazi eta bi urte pasatu direla, ez dugu ezer oraindik ere.

Nos encontramos en mayo de 2018 y, aunque ya han transcurrido dos años desde que se nos comunicó que se nos iba a presentar el Plan de Convivencia de San Sebastián, todavía no se nos ha mostrado nada.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari irailerako parteka dezala Udalbatza osatzen dugun taldeokin Kultur Aniztasun bulegotik lantzen ari den Donostiako Elkarbizitzarako Plana.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, para el mes de septiembre, comparta con los grupos que formamos el Pleno el Plan de Convivencia de San Sebastián que está elaborando el negociado de Diversidad Cultural.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari parteka ditzala Udalbatza osatzen dugun taldeoekin arrazakeriaren kontra eta elkarren ezagutza eta aitortzarako Udaletik antolatzen diren ekimenak eta sustatu ditzala dinamikak non, modu parte hartzailean, udal taldeok eta hiriko eragileek zein norbanakoek Donostiako kultur aniztasuna ezagutu eta aitortuko dugun eta elkarbizitzaren sustatzaile izango garen.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que comparta con los grupos que formamos el Pleno las iniciativas que organiza el Ayuntamiento en contra del racismo y a favor del conocimiento y reconocimiento mutuos y a que promueva dinámicas en las que, de forma participativa, los grupos municipales, las y los agentes de la ciudad y cualquier persona a título individual conozcamos y reconozcamos la diversidad cultural de San Sebastián y seamos

promotores de la convivencia.

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an

San Sebastián, 18 mayo de 2018

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Naiara Sampedro Perez,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Naiara Sampedro Pérez y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3.14. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3.14:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**3.14. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3.14:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

------------------------------

**II.3.15. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostia Zinemaldia izena hedatzeari buruzkoa.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Zinemaldia (“Donostia Zinemaldia” orain arte) erakusleiho ikaragarria da zentzu guztietan. Ondorioz, bertan egiten den orok hartzen du dimentsio itzela, onerako zein txarrerako.

Berriki, Donostia Zinemaldiak bere nortasun grafiko berria aurkeztu du, eta ikusgaitasuna eta modernitatea azpimarratuz, honako marka honi bide eman dio: “SSIFF”, maskor klasikoaren irudi estilizatu berriaren ondoan.

Berlinale, Mostra, Zinemaldia... Zinema jaialdi bakoitzak tokikotasunari bide eta goraipamena egin dizkio orain arte, nazioartean behar diren erabilerekin batera, besteak beste eta hain zuzen ere nazioartean identifikazio propioa izateko aukera paregabea delako eta mundu globalizatuan norberaren nortasuna mantentzea eta ezagutaraztea zein garrantzizkoa den adibide. Aldiz, 2018an bere 66. edizioan, Donostiak atzera jotzea erabaki

**II.3.15. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la difusión del nombre "Donostiako Zinemaldia".**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción trae causa de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de mayo de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El Festival Internacional de Cine de San Sebastián (hasta ahora, Donostia Zinemaldia) constituye un escaparate magnífico en todos los sentidos. Por tanto, todo lo que en él se haga cobra una gran dimensión, tanto para bien como para mal.

Recientemente, el Festival Internacional de Cine de San Sebastián ha presentado su nueva imagen, y subrayando la visibilidad y la modernidad, ha dado paso a esta nueva marca: SSIFF, con la imagen estilizada de la clásica concha al lado.

Berlinale, Mostra, Zinemaldia... Hasta ahora, cada festival internacional de cine ha dado entrada a lo local y ha hecho mención de ello, junto a los usos necesarios en el ámbito internacional, entre otros factores, y, precisamente, porque constituye una ocasión simpar para mantener a nivel internacional la propia identidad, como ejemplo de lo importante que resulta mantener y difundir la personalidad de cada festival en un mundo

berri du, dagoeneko munduan existitzen den izena hautatuz, SSIFF Silver Springs International Film Festival baita, erregistratua egon ala ez.

Gure hiriko euskarazko izena galtzeko arriskuez ohartu dugun bakoitzean, Udal Gobernuak jakinarazi du "Donostia" izenaren aldekotasun irmoa mantenduko duela, bai eta euskararen altxorra ezagutarazteko eta zabaltzeko ere. Aldiz, mundu osoan zabaltzeko aukera duen honetan, Zinemaldiak Donostia galtzen utzi du eta Donostiak, Zinemaldia. Eta herritarren haserreari erantzunik aurkitu ezinean gaude.

Udal Gobernuaren erantzunak marka eta logoaren inguruko azalpenetara mugatu dira, muinari heldu gabe. Maskorra estilizatu egin dela begien bistakoa da, aurtengo kartelean Donostia eta Zinemaldia izenek pisua galdu dutela bezain begien bistakoa. Aldiz, ikusgaitasun hori konpentsatzeko neurri eta asmorik ez du agertu Udal Gobernuak, argi eta zuzen horri buruz galdetuta ere.

Diotenez, izena ez da galdu baina lantzen ari den marka, argi eta garbi, SSIFF da, kartela ikustea besterik ez dago-eta. Eta horrekin lau haizetara zabaltzeko aukera galtzen ari da. Estetikak alde batera utzita, Udal Gobernuak Donostia, Zinemaldia eta Donostia Zinemaldia marka lantzeari eutsi behar dio, horrek guztiak hirian izan eta izango duen eragin eta garrantzia kontuan hartuta.

globalizado. Sin embargo, en 2018, en su 66ª edición, acaba de decidir desandar el camino y ha optado por una denominación que ya existe en el mundo, SSIFF, Silver Springs International Film Festival, esté registrada o no.

Cada vez que hemos advertido al Gobierno municipal sobre los riesgos de que se pierda la denominación en euskara de nuestra ciudad, el Gobierno municipal nos ha hecho saber que mantendrá una postura firme a favor de la denominación Donostia y también en pro de dar a conocer y difundir el tesoro del euskara. Sin embargo, en esta ocasión en la que tiene la oportunidad de darlo a conocer en todo el mundo, ha dejado que el festival pierda la denominación Donostia y que Donostia pierda la de Festival de Cine. Y nos encontramos en la tesitura de que resulta imposible encontrar una respuesta al enfado de la ciudadanía.

Las respuestas del Gobierno municipal se han limitado a explicaciones sobre la marca y el logo, sin entrar en el fondo de la cuestión. Es patente que la imagen de la concha se ha estilizado, tan patente como que en el cartel de esta edición han perdido peso las denominaciones Donostia y Zinemaldia. Por el contrario, el Gobierno municipal no ha mostrado intención y medida alguna para compensar esa invisibilidad, incluso aunque se le ha interrogado directa y claramente al respecto.

Según afirman, el nombre no se ha perdido, pero la marca que están trabajando, bien a las claras, es SSIFF, no hay sino observar el cartel. Y con ello se está perdiendo la posibilidad de difundirlo a los cuatro vientos. Aparte del aspecto estético, el Gobierno municipal debe seguir trabajando las denominaciones Donostia, Zinemaldia y la marca Donostiako Zinemaldia, teniendo en cuenta la importancia y la influencia que todo

ello ha tenido y tendrá en la ciudad.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio dagokion lekuan eta behar diren baliabideak erabilita berma dezala aurten eta datozen urteotan Donostiako nazioarteko zinemaldian Donostia Zinemaldia marka zabaldu eta ezagutaraziko dela.

- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que allí donde corresponda y disponiendo los medios que sean precisos, garantice que en el Festival Internacional de Cine de San Sebastián tanto este año como en próximas ediciones, se difundirá y se dará a conocer la marca Donostia Zinemaldia.

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an

En San Sebastián, a 18 de mayo de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D.ª Miren Albistur Garmendia y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 25 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – (PSE-EE, ERNESTO GASCO GONZALO JN.).**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 25 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 1 – (PSE-EE, D. ERNESTO GASCO GONZALO).**

--------------

**II.3.16. Kontrol mozioa, Ondarretako urak ur**

**II.3.16. Moción de control, presentada por el**

**beltzekin ez kutsatzeko neurriak hartzea dela eta.**

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Olaia Duarte Lopezek Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzaren 14an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko irailean, Eguzki talde ekologistak Ondarretako hondartzako uraren egoerari buruzko informazioa eskatu zuen, idatziz. Eguzkik adierazi zuenez, 2016ko irailaren 19an hondartza horretan egin zituzten neurketetan ikusi zuten uraren kalitatea eskasa zela. Hala ere, bainatzea osasunerako arriskutsua bazen ere, hilaren 27ra arte ez zituzten bainulariak horretaz ohartarazi.

Dirudienez, Tenis inguruan zuen urak kalitaterik okerrena. Eguzki taldeak kutsadura nondik zetorren aztertzeko eskatu zion Udal Gobernuari.

2016ko azaroko batzordeetan horri buruz hitz egin genuen, eta zinegotzi ordezkariak adierazi zuen ez zegoela arriskurik bainularientzat baina aitortu zuen uraren kutsadura handiagoa zela Tenis inguruan. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen litekeena zela Teniseko saneamendu pribatuan zeuden arazoak izatea kutsadura haren iturria, eta hori aztertzeko konpromisoa hartu zuen.

2017ko uztailean, berriro ere, Eguzki taldeak ohartarazi zuen Ondarretako uraren kalitatea

**Grupo EH BILDU, sobre las medidas a tomar para evitar la contaminación fecal del agua de Ondarreta.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción de control trae causa de la interpelación sustanciada en la Comisión de Espacios Públicos del 14 de mayo de 2018.

JUSTIFICACIÓN

En septiembre de 2016, el colectivo ecologista Eguzki solicitó, por escrito, información sobre el estado del agua de la playa de Ondarreta. Según señala Eguzki, en las mediciones que se realizaron el 19 de septiembre de 2016 en dicha playa, se comprobó que la calidad del agua era deficiente. Sin embargo, a pesar de que bañarse suponía un riesgo para la salud, hasta el día 27 no se alertó de esta circunstancia a los y las bañistas de la citada playa.

Al parecer, era en la zona del Tenis donde el agua presentaba una peor calidad. El grupo Eguzki solicitó al Gobierno Municipal que realizara el estudio pertinente para determinar cuál era el origen de dicha contaminación.

Cuando abordamos esta cuestión en las comisiones de noviembre de 2016, el delegado afirmó que el baño en dicha zona no presentaba ningún riesgo pero que era cierto que en la zona del Tenis había una mayor contaminación. El delegado señaló que era probable que los problemas existentes en el saneamiento privado del Tenis constituyeran el foco de aquella contaminación, por lo que se comprometió a comprobar dicho extremo.

Una vez más, en julio de 2017, el colectivo Eguzki advirtió de que la calidad del agua de

ez zela egokia eta azterketa sakonagoak egin behar zirela. Izan ere, 2016an egindako neurketen arabera, bost alditan suertatu zen desegokia uraren kalitatea, eta 2017an, gutxienez, bi alditan.

Ondarreta no era la adecuada y señaló que era preciso realizar un estudio más profundo. El motivo de ello era que, según las mediciones realizadas en el 2016, la calidad del agua resultó no ser apta en cinco ocasiones, y en el 2017, por lo menos en dos ocasiones.

Uztaileko batzordeetan, gai horri buruz aurkeztu genuen ekimen bati erantzunez, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Teniseko saneamendu arazoak konpontzeko bidean zirela eta litekeena zela badiako txalupak ere arazo horien sorburu izatea.

En las comisiones de julio, en respuesta a una iniciativa que presentamos sobre este asunto, el delegado señaló que los problemas de saneamiento del Tenis se encontraban en vías de solución y que los barcos de la bahía podrían ser también el origen de estos problemas.

Baina, hala ere, ez zen ezer egin arazo horiek amaitzeko, eta, abuztuaren 28an, 29an eta 30ean, hainbat bainularik, uretan zeudela, azkura sentitu zuten. Horren ondorioz, Gurutze Gorriko sorosleek kexa ugari jaso zituzten. Esate baterako, abuztuaren 29an, Tenis inguruan igerian ibili zen bikote batek ospitalera joan behar izan zuen azkura eta azaleko gorritasuna zirela eta. Hainbat egunean, bandera horia egon zen jarrita, uraren kutsadura fekala zela eta.

Sin embargo, no se puso fin a dicha contaminación, y el 28, 29 y 30 de agosto varias personas que se encontraban en el agua sintieron picores. Como consecuencia de ello, fueron muchas las quejas que en esos días recibieron los y las socorristas de la Cruz Roja. Así, el día 29, una pareja que se encontraba nadando cerca del Tenis tuvo que acudir al hospital, por el picor y el enrojecimiento de la piel que les provocó el agua. Durante varios días, se colocó la bandera amarilla debido a la contaminación fecal del agua.

Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen litekeena zela kutsadura txalupen ondorio izatea eta esan zuen lantalde tekniko bat sortuko zuela, halako arazorik berriz ez izateko.

El delegado manifestó que era probable que dicha contaminación proviniera de los barcos y que se iba a crear un equipo técnico para evitar problemas de este tipo.

18 hilabete geroago, Añarbek Ondarretako uren kutsadurari buruz egin duen ikerlanaren bi txosten jaso ditugu, erregistro bidez.

Transcurridos 18 meses, hemos recibido, a través del registro, dos informes de la investigación que Añarbe ha realizado sobre la contaminación de las aguas de Ondarreta.

Lehenengo txostena AGASA eta Donostiako Udala egiten ari diren ikerlanen emaitza da. Horren bidez, 2017ko hondartza garaian Ondarretan izandako kutsadura nondik etorri zen argitu nahian dabiltza, Uraren Euskal

El primer informe se encuadra dentro de los trabajos de investigación que tanto AGASA como el Ayuntamiento de San Sebastián están llevando a cabo para intentar determinar el posible origen de los episodios puntuales de

Agentziarekin koordinatuz eta hura jakinaren gainean dela. Hain zuzen, Ondarretan kutsadura gertaera jakin horiek eragin ahal izan zituzten hiru iturri aztertu dituzte, eta ondorio hauetara iritsi dira:

contaminación producidos en la playa de Ondarreta en la temporada de baño 2017. Todo ello en coordinación y con el conocimiento de la Agencia Vasca del Agua (AVA/URA). En el se analizan 3 posibles focos que pudieran provocar los episodios puntuales de contaminación en Ondarreta, llegándose a las siguientes conclusiones:

• Añorga eta Igara erreken kutsadurak eragin lezake Ondarreta hondartzaren kutsadura.

• La contaminación base existente en la regata Añorga y en la regata Igara podría ser la causante de la contaminación en la playa de Ondarreta.

• AGASAk ez daki, haren eskumenetatik kanpo baitago, Udalaren beheko saneamendu saretik etor ote litekeen kutsadura hori.

• AGASA desconoce (al estar fuera de sus competencias) si la red de saneamiento municipal en baja pudiera aportar esta contaminación.

• Badirudi badiako txalupak ez direla kutsaduraren iturria; izan ere, neguan, txaluparik ez denean ere, ageri dira kutsadura hondarrak badian, nahiz eta bainatzeko parametroen barruan sartu.

• Parece que se deben descartar los barcos de la bahía como posible foco porque en invierno, cuando no hay barcos, siguen apareciendo restos de contaminación (aunque dentro de los parámetros de baño) en la bahía.

Bigarren txostenak dio, Errekalde, Añorga, Igara, Ibaeta, Errotaburu, Antigua, Ondarreta eta beste auzo batzuetako beheko saneamendu sareak unitarioak direnez, euria egiten duenean, litekeena dela Ibaetako HUPEra eguraldi lehorrarekin baino lau aldiz emari gehiago sartzea; horren ondorioz, isurtzeak gertatzen dira errekara, hala toki horretan nola beheko sareko beste toki batzuetan.

El segundo informe, especifica como las redes de saneamiento en baja de los barrios de Rekalde, Añorga, Igara, Ibaeta, Errotaburu, Antiguo, Ondarreta, etc. siendo unitarias, provocan que los días de lluvia puedan llegar a entrar en EBAR Ibaeta caudales que multiplican por 4 los habituales de entrada a la EBAR en tiempo seco, provocando alivios a la regata tanto en este punto como en otros alivios de la red de baja.

Gainera, txostenak azpimarratzen du ikertu egin behar dela nondik datozen Añorga eta Igara erreketan egindako 14 analitiketatik bitan atera diren kutsadura balio maximo handi horiek, batez bestekotik oso gora baitaude. Zaila da zehaztea; izan ere, zalantzarik gabe, oso kutsagarriak diren baina oso gutxitan gertatzen diren isurketa puntualak dira. Baina kontua da bi errekak Ondarreta hondartzatik nahiko gertu itsasoratzen direla eta inguru horretan bainatzeko egokiak diren kutsadura

Además, insiste en la necesidad de investigar de dónde proceden los valores máximos de contaminación tan altos que se dan en un par de analíticas de las 14 realizadas en las regatas Añorga e Igara y que exceden tanto de la media. Es complicado determinarlo, pues se trata sin duda de vertidos puntuales muy contaminantes pero que se dan en pocas ocasiones. Pero lo cierto es que las dos regatas desembocan relativamente cerca de un entorno como la playa de Ondarreta en el

balioak izan behar direla. Horregatik da hain garrantzitsua ikertzea eta isurketak saihestea.

Bigarren txostenak hainbat jarduketa proposatzen ditu:

• Sare bereizlea handitzeko eta unitarioa gutxitzeko jarduerak, euri ur gutxiago sar dadin saneamendu sarean eta, hala, isurtzeak gutxitzeko.

• Saneamendu sareko atxikitze ahalmena handitzeko jarduerak, ekaitzetarako andelak jarrita, isurguneetara datozen emariak erregulatzeko eta gutxitzeko.

Txosten horietan ematen diren datuak ikusita, eta kontuan hartuta ez dugula informaziorik Udal Gobernuak hartuko dituen neurrien inguruan eta laster hasiko dela hondartza garaia, hil honetako batzordean interpelazio bat aurkeztu genion zinegotzi ordezkariari. Zinegotzi ordezkariak azaldu zuen azaroan lan mahai bat sortu zela, Ingurumen eta Mantentze atalek, Eusko Jaurlaritzak eta Añarbek eratua, eta mahai horretan erabaki dutela kutsadura nondik datorren ikertzen jarraitzea. Izan ere, txostenetan jasotzen diren jarduerak 8.000.000 euro kostatzen dira, eta, ezer egin aurretik, seguru egon beharra dago.

Talde honek azpimarratu nahi du 18 hilabete igaro direla Ondarretako hondartzan kutsadura atzeman zenetik, eta, ados egonik ere ikertzea eta aztertzea garrantzitsua dela, jarduera plan zehatz bat eta aurrekontu bat behar direla.

Horiek hala direla, eta azaldutako egoera kontuan hartuta, hauxe da nire

que se exigen unos valores de contaminación aptos para el baño, y de ahí la importancia de investigar y evitar los vertidos.

El segundo informe propone varias actuaciones,

• actuaciones de cara a aumentar la red separativa y disminuir la unitaria, para que entren menos aguas de lluvia en la red de saneamiento y reducir así los alivios.

• actuaciones de cara a aumentar la capacidad de retención de la red de saneamiento con tanques de tormenta, para regular los caudales de llegada a los alivios y reducir éstos.

Teniendo en cuenta los datos aportados en estos informes, la falta de información en relación a las medidas que va a tomar el Gobierno Municipal y la cercanía de la temporada de playas, interpelamos a la delegada en la comisión de este mes. La delegada explicó que hay una mesa de trabajo formada desde noviembre por los departamentos de Medio Ambiente y Mantenimiento, Gobierno Vasco y Añarbe y se ha decidido seguir investigando el foco de la contaminación, ya que las actuaciones recogidas en los informes suponen un gasto de 8.000.000 de euros y antes de hacer cualquier intervención hay que estar seguros.

Desde este grupo insistimos en que hace 18 meses que se vienen dando contaminaciones en la playa de Ondarreta y, estando de acuerdo con la importancia de investigar y analizar, también hace falta un plan de actuación concreto y con presupuesto asignado.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala Igara eta Añorga erreken azterlan xehatu bat, erreka horietara hondakinik isurtzen duen industria jarduerarik baden ikusteko, eta, hala bada, ezar dezala ur beltzak eta euri urak bereizteko sare bat.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari har ditzala hartu beharreko neurriak, aurtengo hondartza garaian kutsadurarik bada, bainuzaleei horretaz garaiz ohartarazteko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari parteka ditzala aipaturiko txostenak Ingurumen Kontseiluarekin, bertako eragileen ekarpenak eta iritziak jasotzeko.

Donostia, 2018ko maiatzaren 18a

Olaia Duarte López,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que realice un estudio detallado de las regatas de Igara y Añorga, para determinar si hay actividades industriales que vierten a dichas regatas e implemente, en su caso, una red separativa de aguas negras y pluviales.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que tome medidas de prevención para avisar a tiempo a los/as bañitas de posibles contaminaciones en la temporada de playas de este verano.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que comparta los informes mencionados con el Consejo de Medio Ambiente para recibir las aportaciones y opiniones de los agentes que componen el consejo.

San Sebastián, 18 de mayo de 2018

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO BOSTAK LAURDEN GUTXIAGOTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECISÉIS HORAS Y CUARENTA Y CINCO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**